

Aiten egungo erronka: Parte hartzetik ardura hartzera



berdindu!

Lesbiana, gay, trans eta
bisexualei arreta emateko zerbitzua.

Servicio de atención a Lesbianas,
gays, trans y bisexuales.

Zer da berdindu?

Sexu- eta genero-aniztasunari buruz
informazioa eta arreta emateko zerbitzua
da, Eusko Jaurlaritzarena.

Zer eskaintzen du?

- Informazioa eta arreta ematen die lesbianeiei, gayeiei, transei eta bisexualei, bai eta horien senitartekoei eta ingurukoei ere.
- Informazioa eta arreta ematen die hezkuntza-komunitateari, gizarte-eragileei eta profesionalei, komunikabideei eta, oro har, jendarteari. Homofobia eta transfobia deuseztatzea du xede.



Araba Zapatería, 39 - bajo
01001 Vitoria-Gasteiz

945 257 077 berdindu.araba@aldarte.org

Bizkaia Berastegui, 5 - 5º
dptos. 8 y 9º 48001 Bilbao

944 237 296 berdindu.bizkaia@aldarte.org

Gipuzkoa Kolon, 50

20002 Donostia-San Sebastián

943 451 722 berdindu.gipuzkoa@gehitu.org

Zerbitzu ibiltaria: / Servicio itinerante:
berdindu.ibiltaria@errespetuz.org 675 459 317
C/ Benidorm N° 1 Entreplanta izq-drch 48015 Bilbao

berdindu.eskolak@guztiok.org
649 834 038 / 653 721 725

berdindu.familiak@aldarte.org
944 23 72 96 / 608 540 566

berdindu!

Zerbitzuaren balorazioa
Valoración del servicio

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

berdindu@euskadi.eus



PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO
CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: ANTZA

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloan Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko ekainaren 7a, 2.464. zenbakia

ASTEKO GAIA

AITATASUNA Parkean umearekin jolastea baino gehiago da zaintza. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

PERTSONAIA

MICHEL GAZTAMBIDE: «Zure irudimena kutsatu ezean, fite bihurtzen zara aspergarri». SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

SAN BIZENTE ESKOLA Irakasle eta ikasleak notarik gabe elkarrekin ebaluatzen. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 14

IRITZIAREN LEIHOA

PERIFERIEN PERIFERIETARA IRITSI DA ALDAKETA

ASIER BLAS MENDOZA / 18

IVAP-HABE-EGA-HEO MIKEL BASABE / 20

URRATSAK IÑAKI MURUA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Besarkadak. KATTALIN MINER / 20

ZIRTAK Akelarre bat gaur. DANELE SARRIUGARTE / 22

ERDIKO KAIERA

GALO MARTINEZ DE LA PERA: «Euskaldun komunitatea egin gabe dago, guk egin behar dugu». MIKEL ASURMENDI / 23

SOPHIE CALLE Bizitzeko manerak. ARITZ GALARRAGA / 26

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 28

MUSIKA JOXI UBEDA / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 30

ALEA Telesailak, gizartearen ispilu. GAIZKA IZAGIRRE / 31

IHESI ZUIAKO KUADRILLA-GORBEIA (ARABA) Sekretua begi-bistan. AITOR KALTZAKORTA / 32

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 34

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 35

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 36

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 37

TERMOMETROA

ALTERNATIBEN HERRIXKA DONOSTIAN Bide bizia, bizia bide. LANDER ARRETZEA BEREZIARTUA / 38

EUSKARAREN TRANSMISIOA Gurasoek nola seme-alabek hala. MALEN ALDALUR AZPILLAGA / 42

HERRI MUGIMENDUAK ETA HAUTESKUNDEAK

Gizartera egokitu ala behetik gora eraldatu?

AXIER LOPEZ, LANDER ARBELAITZ / 44

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Komunikazioa betaurreko moreekin. LANDER ARRETZEA BEREZIARTUA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL *Castor* zor ustela: gaur 1.350 milioi, 2044ra arte 4.730. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Parkean umearekin jolastea baino gehiago da zaintza

Aita parkean dago haurri begira eta guraso batek galdetu dio: “Zer, zu zaude lan-utzialdian?”. Gauzak aldatzen hasita badaude ere, horrelako galderek adierazten dute ohikoa umea amak zaintzea dela, ez aitak. Bestela, probatu galdera amari egiten: “Zer, zu zaude lan-utzialdian?”.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco

EMAKUMEAK BARNERATUAGO DAUKA halako batean ama izatea erabakitzen badu haurra berak zainduko duela. Gure gizartean errota dago amak denboraldi baterako enplegua utziko duela eta haurra artatzen arituko dela. Begi onez ikusia dago, jendarteari mesede egiten ari da. Amaren rola hori da. Aitarena ez, horregatik sarreran aipatu dugun moduko komentarioak oso ohikoak dira. Aitak argi eta garbi izan behar du haurra zaindu nahi duela, lan merkatutik ateratzeak ez diola axola, edo behintzat, haurraren zaintza hobetsiko duela. Aitak justifikatu eta argudiatu egin behar du aitatasun baja, adibidez.

Itziar Alonso-Arbiol EHUko Psikologia Fakultateko irakaslea da, *Amatasun eta aitatasuna, proposamen berriak* (2006, UEU) liburuaren egilea. Honela deskribatzen ditu aitaz eta amaz gizarte honek dituen irudi sozialak: “Orokorrean, haurren zaintzari emana dagoen aitak badu ukitu positiboa, aita ‘jatorra’ da aitatasun baimena hartzen duena. Baina, egunez egunekoan, eta batik bat lan merkatuari lotuta, ez da serioa haurrak zaintzeko lana uztea”. Abokatu edo arotz izateko ikasketak egin dituen, haurra tarteko lan merkatutik ateratzea ez dago hain ondo ikusia, etorkizuneko proiektuak dituen gizonak etenaldiak egitea ez da batere erraz ulertzen. Haurren zaintza oztupoa da. Ez dator batik gizonaren rolaekin, eta beraz, zaintzari lehenetasuna emango dion gizonak ideiak oso garbi izan

behar ditu, sendo egon behar du bere jarraera ohiz kanpokotzat jo dutenei erantzun ahal izateko.

Soldatak ere badu zerikusia

Alonso-Arbiolak uste du aitak haurren zaintzan emandako pausoak xumeak izatearen arrazoi nagusia kontatu berri dugun irudi soziala dela. Bigarren mailan kokatzen du zaintzarako lan etenaldiak egiteko aitaren eta amaren soldatak kontuan hartzea. Hau da, gizonak du sarri emakumeak baino soldata hobea, eta argudio edo aitzakia izan daiteke lan merkatutik ez ateratzeko.

Enplegua eta familia ez dira uztargarriz hartzen, batera edo bestera egin behar da, eta batik bat zaintzak egiten du talka gainerako jarduera guztiekin, dela enplegua, dela aisialdia... Europako hainbat herrialdetan ez bezala, Hego Euskal Herrian dikotomia saihestezina da. Enplegua mutur batean eta zaintza bestean. Lehenengoak prestigioa du, ezin du edonork edozein lan egin, ikasi egin

behar da lan merkatuan aritzeko. Umea edonork zaindu dezake, ez du inolako prestakuntzarik eskatzen. Alonso-Arbiolak dio ez dela batere goxoa aitari egiten zaion proposamena: “Anekdotaz gain, (‘ai zein aita jatorra, lana utzi eta umea zaintzen ari da!’), esaten zaio ez duela lana serio hartzen haurrarekin etxean geratzen bada, eta era berean, esaten zaio umeak edonork zain ditzakeela, ez dagoela zertan aditua izan”.

“Orokorrean, haurren zaintzari emana dagoen aitak badu ukitu positiboa. Baina, egunez egunekoan, eta batik bat lan merkatuari lotuta, ez da serioa haurrak zaintzeko lana uztea”

Itziar Alonso-Arbiol,
EHUko psikologia irakaslea





Beigi-bistakoa da XXI. mendeko aitak umeen zaintzan aurrerapausoak eman dituela. Hala ere, bide luzea dago egiteko. Amaren lehentasuna haurra zaintzea izatea normalizat hartzen da, aldiz, aitak aldi baterako enplegua uztea umea zaintzeko ez da batere ohikoa.

Amak umearekin lotura sendoagoa?

Ikuspegi biologikoa azpimarratzea aitzakia da psikologoarentzat. Amak umearekin lotura berezia izatea, barnean izan duelako, bularra eman diolako... ulertzen du Alonso-Arbirolek, baina badira haurraz erditu ez diren amak eta lotura afektiboa berdin mantentzen dute. Nerabeen ongizate psikologikoa indartzeko gurasoen jarrerak aztertzen dituen ikerketa batean, aldagai batzuetan, afektibitate lotura handiagoa zuten aitek umekin amek baino.

Askok falta zaigu haurren zaintzan amak eta aitak rol antzekoak betetzera iristeko. Aurre-

rapausoak eman dituzte aitek, baina Alonso-Arbiol beldur da Espainiako Estatuaren egoera ekonomikoa dela eta ez ote dugun atzera egingo. Zenbat eta gizarte pobregoa, orduan eta balore atzerakoiagoak. Zaintza prestigioatzeko, umeen arduraren eta enplegua uztartzeko neurriak hartzeko, klase ertain indartsua beharrezkoa da, eta gaur egun, Espainiako Estatuan jende masa hori galdu egin da.

Islandiako 4-4-3ra iritsiko bagina?

Aitak eta amak betetzen duten rolaz hitz egin dugu. Irudi sozial hori aldatzeko erreminta garrantzitsua da aitatasun eta amatasun baimenak berdintzea, PPIINA plataformaren iritziak. Espainiako Estatuaren talde honek jaioberrietan eta adopzioetan baimen berdina, besterenezinak (intransferibleak) eta %100 ordainduak eskatzen ditu. Gaur egun aitek hamabost eguneko baimena dute. Amatasun baxa hemezortzi astera luza daiteke: sei aste amak hartu behar ditu derrigor, hamar aste amaren ordean aitak har ditzake, eta beste bi aste edoskitzeari dagozkio. PPIINAK bi arrazoi nagusi ditu eskaerok egiteko. Batetik, emakumeek dituzten eskubide berak nahi dituzte gizonentzat. Bestetik, arduraren banaketaren alde egin nahi dute, eta umeari etorrirekin hain justu, bikote harreman berdinezaleen artean ere balantza kolokan jartzen da. Emakumeek, haurrak izateko garaian daude, kontratatuak izateko eta lantokian maila igotzeko oztopoak edukitzen dituzte. Iraupen bereko baimenak izanez gero, ez litzateke kontratazioetan eta promozioan diskriminatzeko halako aukerarik egongo. Ama errazago moldatuko litzateke lan merkatuan, aitek zaintzan hartuko lukete parte, eta plataformako kide José Carlos Santamaría esan digunez “jaiotze tasak gora egingo luke”.

Aitaren eta amaren baimenak berdintzea eskatzen du Santamaría, baina esan diogu gaur egun bereak dituen hamabost eguneko gain, amak utz diezazkiokeen hamar asteak

Ondarre
B A S E R R I A

20214 Segura (Gipuzkoa) • Tel: 943 80 16 54
ondarre@hispavista.com • www.nekatur.net/ondarre



hor daudela, eta aitak ia inoiz ez dituela hartzen. “Baimena batak besteari utzi ahal izatea patriarkatuaren tranpa da. Irudi aldetik ondo dago, baina praktikan ez du ezertarako balio. Amak aitari hainbat astez baimena uzteko aukera dagoen inongo herrialdetan ez du funtzionatzen, hau da, amek hartzen dute. Espainiako Estatuan aiten ehuneko bik ere ez du hartzen amak utzitako baimena”. Bestalde, Santamaríari zentzugabekeria demokratikoa iruditzen zaio eskubide bat pertsona batek besteari pasa ahal izatea, konstituzioaren aurkakoa ere izan daiteke.

Aitak, hasierako hamabost egunez gain, amak utzi diezazkiokeen baimen egunak ez ditu hartzen. Zergatik? Plataformako kideak bere iritzia eman digu. Batetik, aitak badaki emakumeak baimenak hartzen dituen haren lan ibilbidea izorratzen duela, eta aitak ez du horrelakorik nahi berarentzat. Bestetik, patriarkatua ideologia oso indartsua da eta emakume askori ez zaio gustatzen bere baimen zatia uztea. Baimen sistema gaizki diseinatuta dago eta aitak eta amak lehian jartzen ditu.

Islandia da munduan gizonentzat eta emakumeentzat gurasotasun baimen berdinzaleenak dituen herrialdea. 2000. urteko erreformari esker, bai aitak eta bai amak, bakoitzak hiru hilabeteko baimen besterenezina (intransferiblea) zuten. Beste hiru hilabete besterengarriak (transferibleak) ziren. Islandiako gizonak ez dira bereziak, erreforma egin aurretik haiek ere baimen besterenezinak eta ondo ordaindutakoak baino ez zituzten hartzen, ondo ordainduta ez zeudenak ez zituzten nahi, ezta amak har zitzakeen egunak ere, nahiz eta ondo ordainduta egon. Gaur egun 4-4-3 da sistema, lau amak, lau aitak eta lau nahi duenak. Gizonen

%90 inguruk dagozkion lau hilabeteak hartzen ditu, eta besterengarriak diren hiru hilabeteren heren bat. Aurreikuspenak betetzen badira, 2016an 5-5-2 izango da proportzioa. Zifretan garbi ikusten da baimen ereduaren ibilbidea: 3-3-3 zenean, amak 6 eta aitak 3 zen emaitza; 4-4-3 sisteman, amak 7, aitak 4, eta joerak mantentzen badira 5-5-2 ereduari amak 7, aitak 5 lortuko da. Ia berdintzera iritsiko lirateke.

Espainiako Legebiltzarrean aurkeztuta dago PPIINaren ez legezko proposamena, baimen besterenezinak eta berdinak eskatzeko. Bi talde politiko handiei, PSOERI eta PPRI, ondo iruditzen zaie plataformaren eskaria, baina lege bihurtu eta Islandia moduan pausok emateko baldintza bat jarri dute: egoera ekonomikoa hobetzen denean hartuko dituzte neurriak. Santamaríaren ustez, arrazoi ekonomikoak aitzakiak dira. Ez da neurri garestia (aitaren baimena astebete luzatzea 200 milioi euro litzateke) eta onurak asko dira: jaiotze tasan eragingo luke; familia eredu berriak bultzatuko lirateke; emakumeek errazago iraungo lukete lan merkatuan.

“Baimena batak besteari utzi ahal izatea patriarkatuaren tranpa da. Irudi aldetik ondo dago, baina praktikan ez du ezertarako balio. Baimen sistema gaizki diseinatuta dago eta aitak eta amak lehian jartzen ditu”

J. C. Santamaría,
PPIINako kidea

Aitak zaintzen hastea, aldaketaren hasiera

Oraindik badira umea pediatarrengana laguntzen dutenean autoa tailerrera eramatera doazela esaten duten aitak. Santamaríak horrelako adibideak behin baino gehiagotan entzun ditu: “Baimena luzatzea lortuko bagenu ere ez litzateke denbora askorako, baina aitok bide horri segi beharko genioke, eta bide hori ez litzateke izango gure aitek egin dutena (edo egin ez dutena). Baimenak gizonoi pentsaera aldatzen lagunduko liguke. Aitok zaintzen hastea da aldaketaren hasiera”. Santamaríari arraroa egiten zaio haurrak maitatzea, baina ez zaintzea. ■



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



Edu Portilla Najera «Norbera askeago sentitzen da aitatasunaren bidea esploratzen»

“EMOZIOZ BETETAKO” hilabetea izan da iraila azken hamaika urteetan Edu Portillaren eta Nerea Txurrukaren etxean. Ez dituzte lan finkoak izan eta 11, 8 eta 5 urteko semeak dauzkate. Ikasturte hasieran umeen eskola ordutegiak, eskolaz kanpoko ekintzak eta beraien lanaldiak koordinatu behar izaten dituzte.

Lehenengo semea jaio zenean, biak ari ziren lanean. Elkarrekin egiten dituzten egitasmo guztietan bezala, gurasotasuna ere halaxe lantzea erabaki zuten. Garai batzuetan aitek izan du umeen eta etxearen ardura nagusia, eta beste batzuetan, amak. Biek lanaldi murriztuak izan dituzte, Txurrukak lan-utzialdiak hartu ditu eta Portilla langabezia egon da tarteka. Seme zaharrena jaio zenetik 5-6 bat urtez hartu ditu aitek lanaldi murriztuak. Orain, lehenengo aldiz lanaldi osoan ari da: “Arabako Foru Aldundian ari naiz lanean, inoiz izandako lan baldintza eta soldata onenak dira eta baliatzea erabaki dugu, diru iturria delako. Emazteak lanaldi erdia egiten du”. Uztailean bukatuko zaio Portillari egun osoko lana.

Soldata ez da irizpide bakarra

Portillari galdetu diogu ea bataren eta bestearen soldatek eragina izan duten lanaldi murrizketak hartzerakoan: “Ez dugu ezkutatu behar, Txurrukak nik baino soldata handiagoa izan du. Baina egia esaten badizut, soldata diferentzia hura ez genuen kontuan izan, biok genituen lan baldintza duinak”. Emaztea baino soldata hobeko lana izan zuen, eta aldi hartan lanaldia heren bat murriztu zuen. Bere ustez, soldatak kontuan hartu behar dira, baina ez da erabakiak hartzeko irizpide bakarra, ezta lehenengoa ere. Ulertzen du bata bestearen bikoitza irabazteak erabakian pisu handia izatea, “baina gure gizartean joera dago, soldata parekoa izanda ere, zaintzarako murrizketak emakumeak hartzekoa”.

Senar-emazteak lan ibilbideko enpresei eskertuta daude eszedentziak, ordutegi murrizketak eta moldaketak egiteko arazorik izan ez dutelako. Zoritzarrez, eskertu beharrekoa dela dio Portillak, legez eskubidea izan arren praktikan ez delako hala gertatzen. Berak Udaberri euskaltegian, SETEM Hego Haizea GKEan eta On:giz-en –emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztearen aldeko elkarte– egin du lan.

Zer galdu duzu? Zer irabazi duzu?

Ikasteko denborarik ez du izan Portillak, hizkuntzak gustura ikasiko zituzkeen. Loa ere askotan galdu du, eta lagunekin egoteko denbora gutxi izan du. Lanaldi osoz aritu bazen, ez daki zer gertatuko zen, “baina agian lan munduan aukeraren bat sor zitekeen”. Zer irabazi duen? Umeak hobeto ezagutzea, eta batez ere



PORTILLA-TXURRUKAK UTZIA

Edu Portilla eta Nerea Txurruka Unai, Ibon eta Manex semeekin.

ama eta aita, biak, haien erreferentzia bihurtzea. Ez matxuratu den jostailua konpontzeko eskatzeko, baikik eta umeek dituzten egoera emozionalak, konfiantza, lotura, denbora, elkarbanatzeko.

Zaintza parkean umearekin jolastea baino gehiago da

“Badira gauza asko egiten dituzten gizonak, asko ‘laguntzen’ dutenak esan genezake. Baina pentsatzen eta antolatzen, gauza guztiak buruan izaten, oraindik ere emakumeek hartzen digute aurrea”. Dena buruan izatea, arropa, pediatra, eskola, eskolaz kanpoko ekintzak... oso zama handia dela uste du. Berari adibidez, arropa antolatzea kosta egiten zaio, horretan kezka handirik ez duelako izan umeak iritsi arte. Senar-emazteak umeen gauza guztiak elkarbanatzen saiatzen dira. Adibidez, pediatarrengana joan behar badu Portillak ondokoa moduko egoerak saihesten ahalegintzen da: “Emazteak esan dit umeari hau eta hau gertatu zaiola...”.

Gizarteak aitari eta amari ez diela berdin begiratzen uste du Portillak. Autobusean jaioberria negarrez ari zela emakumeak “aholkuak” eman zizkion: “Ziur naiz gizona nintzelako ari zela”. Beste batzuetan ikusezin bihurtzen dira: “Umeari buruzko galderak amari begira egiten dira, nahiz eta aita alboan egon”.

Hurkoa zaintzeak ez du prestigiorik, hala uste du Portillak, eta beraz, zail ikusten du gizartearen onespina lortzea. Alabaina, bikotekideak eta familiak aintzat hartzen dute aitari dagokion ardura hartu izana, “eta norbera askeago sentitzen da bide hori esploratzen”.

Emakumea ordea, galtzaile. Etxeaz eta familiaz arduratzeagatik, aitorpenik ez duela izan, eta are gehiago, “etxeoandrea” terminoa sarri mespretxuz erabili dela uste du. Aitzitik, feminizatuta dauden ardura horiek gizonen hartutakoan, balorazioa hobea dela sumatzen du. “Gure jendarte matxista honek neurtzeko modu diskriminatzailea erabiltzen du lanbide edo zeregin bera betetzen duen pertsonaren arabera”.

PERTSONAIA

MICHEL GAZTAMBIDE

«Zure irudimena kutsatu ezean, fite bihurtzen zara aspergarri»

“Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordea...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



Frantzian, Apt-en, hasten da zure gidoia.

Hego Euskal Herritik joandako bi emigrante-ren semea izan arren frantsesa da ongi hitz egin dudan lehen hizkuntza. 1960ko hamarkadako frantses eskola publiko arranditsuan ikasi nuen, kultura arnastu eta edan... Frantses kulturak izugarritzko pisua du nigan. Hala, 1969an Iruñeko Eskolapioetan lur hartzea izan zen

gogorra: uniforme jantzi, kredo gogoz ikasi... “Espainola” nintzen Frantzian eta “*gabatxoa*” Iruñean. Ez naiz sekula nagoen tokikoa izan. Gerora, Donostiara mudatzean ere, “nafarra” deitzen zidaten. Hastapenean mingarria da, erraiak sutzen dizkizu, baina ez da talaia txarra munduari erreparatzeko. Bizi zaren jendartearekiko distantzia ematen dizu,



bertakoak heltzen ez diren txokoetan kamera pausatzeko gaitasuna.

Aldea dago, alta, kamera pausatzeko txokoa ikusetik kamera atzeko lanak egitera.

Frantzian bizi ginela ikusi nuen *L'Adieu aux Armes*, I. Mundu Gerrari buruzko film berritza, haur frantsesei alemaniarrek sasikumeak zirela pentsa zezaten jartzen zietena. Harrapatuta gelditu nintzenez, oinarrizko ikasketak bukatzean zinemarekin zerikusia zuen zerbait ikasteko ahalegina egin nuen. Alferrik, ordea. Inguruan ez zegoen antzeko ezer eta gurea bezalako familia xumean pentsaezina zen zinema ikastera kanpora joatea. Gogogabeturik ekin nion beste karrera bati, soldaduska egokitu zitzaidan eta poesia idatziz asetzen nuen nire sortzaile grina. Hala-ko batean, poema bat izateko luzeegia zen pieza arraro bat sortu, film bat izan zitekeela otu, eta gidoi bat nola idazten zen arrastorik izan gabe irabazi nuen lehiaketa bat. Zoriak itzuli ninduen zine mundura, zoriak

eman zidan labor pare bat egiteko aukera. Aski izan zen zuzentzen idazten baino dorpeagoa nintzela ohartzeko. Berezko ofizio bat da gidointza, beste ezertara ez dedikatze bezain eder eta konplikatu.

NORTASUN AGIRIA

Michel Gaztambide. 1959an sortu zen Apt-en (Frantzia). Film labor eta telebistako zenbait saio zuzendu baditu ere, gidointza da ofizioz. Bereak dira, besteak beste, Julio Medemen *Behiak*, Enrique Urbizuren *La Caja 507* eta *La Vida Mancha*, Aitzol Aramaioren *Txokolate apur bat*, Rodrigo Roderoren *El Idioma imposible*, edo Iñaki Elizalderen *Baztan* filmetako gidoiak. 2012an gidoi onenari dagokion Espainiako Goya saria eman zioten *No habrá paz para los malvados*-en egindako lanagatik. Horrez gain, gidointzari buruzko master zein ikastaroak ematen ditu Espainiako Estatuan eta lau poema liburu kaleratu ditu: *Las aventuras de Máximo Tiratti*, *Banderín de Perversión*, *Ternura Blindada* eta *Moscas en los incunables*.

Zer da gidoigile on bat?

Idazle batek bezala idatzi eta zinegile baten gisan pentsatzen duen norbait. Idazten duzun orok izan behar du irudi. Horretarako, autoexigentzia itzela eta autoexigentzia horri bizirauteko gaitasuna behar dituzu. Haustea eta berriz hastea da gure egunerokoa. Esku batean sedazko izara batekin eta bestean zorrozitutako aizkora batekin idazten da gidoi bat. Biak dira ezinbestekoak istorio bat iruditzen ordenatzeko. Ezin zara autokonplazentzian erori, garbi ukan behar duzu pelikularen onurarako ari zarela, filma zure mesedetara jarri ordez. Ofizioak irakatsi dit segurutasuna datzala goizegi "akabo!" ez esatean, beti bila ibiltzea dela sekulakora iristeko sinesmena. Buruarekin eta eskuekin ez ezik, ipurdiarekin ere idazten dira gidoiak.

Nolakoa da gidoigilearen begirada?

Pelikulak egiten ditugunok eta filmak ikusten dituztenek eremu zabala elkarbanatzen dugu: bizitza. Hori da gure guda-zelaia. Nola islatzen den tristura? Klean goibeldu zaituen irudia disko gogorrean grabatu eta gidoiak tristura eskatzen dizunean erabiliz. Sentimenduak eta irudiak elkarri lotuta xurgatzen dituzten belakiak gara. Horregatik da sormena jarrera bat. Noiz-zer arrantzatuko duzun ez dakizunez, beti zaude arrantzarako prest. Gure ama hiltorian zegoenean, autobusean joaten nintzaion ospitalera bisitan. Otsaila zen, eguraldi gaiztoko negu betea, eta nire aurreko 7 urteko neskatilak kristal lurrunduan K.K idatzi zuen bihotz batean barnebilduta. Neskatilaren xalotasuna, gure amaren heriotza, nire tristuraren baitako irribarra... Sabelak buelta eman zidan, eta gauzak zer diren, urte batzuk berantago film batean sartu nuen irudia. Keinuak, hitz egiteko manierak... Beti egon behar duzu adi. Nik ez dakit bonbilla bat aldatzen edo iturria konpontzen, kasurik egiten ez diedalako haserretzen zaizkit lagunak, baina bizitzaren detaile zinematografikoak nekez eskapatzen zaizkit.

Detalle zinematografikoez ari gareno, nola sortzen da pertsonaia bat?

Arketipoetatik eta bizitzaren obserbaziotik abiatuta, istorioaren beharren arabera pertsonaia ñabarduraz janztea da gakoa. Edozein egoeraren aurrean zure pertsonaiak nola erreakzionatuko lukeen, zer sentituko eta nola jokatu lukeen irudikatu behar duzu. Bere psikologia garatu eta zeure egin. Badira istorioaren bilakaerarako traba izan ez dadin pertsonaia gehiegi garatzen ez duten gidoilariak, baina niri pertsonaian oinarrituta idaztea gustatzen zait. Ez da kasualitatea [Enrique] Urbizuk eta biok egin ditugun lanetan protagonistek gure adina izatea. Denek dute gure zerbait, gure zeharkako arrasto bat edo beste. Alabaina, psikologia irudi bihurtzea da giltza, zer agertu eta zer gorde garbi izatea. Esaterako, trajez beztitutako gizon bat ageri bada treneko leihoaren aurka lo, eta planoak behe-egitean, oin bakoitzeko behatz lodien parean, galtzerdietan bi zulo baditu, zer pasatzen da ikuslearen burutik? Collage lana da zinema, topikoekin jolas egitea. Gidoigileok ez gara egitura teoriko batentzat ari, zerebe-loatentzat baizik. Arrazoiaren eta intuizioaren arteko orekan datza arrakasta. Zenbat eta oreka gehiago, orduan eta aukera gehiago ikusleak etxera eramango duen film sakon hori egiteko.

Arrazoitzeaz eta intuitzeaz harago, emozioak idatzi daitezke?

Emozioak transmititzen dituzten irudiak idatzi daitezke. Intuitu zenezake non egingo duen jendeak negar, noiz lehertuko den barrez, baina lan bat aurkezten duzunero zara jendearen erreakzioaren beldur. Uste zenuena gertatzen da batzuetan, baina gidoilari gehienok hartu ditugu susto eta disgustu galantak. Zure lanarengandik askatzen ez zareno, ez dakizu zehazki zer egin duzun. Horregatik da eskola bikaina zine-aretoa zure pelikula ikustera joatea. Jendeak filma



ogiaren egia
Ogi biologikoak
**Harri errota
xehetutako
irinarekin
egindako
ogiak**
Orantza ogiak

Galparsoro
OKINDEGIA

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074
www.galparsorookindegia.eu



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)

SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

AZKEN HITZA

Ikuslea, tontoa?

“Ikasleak ‘telebistako gidoigintzako maisuak ikuslea tontoa dela esan digu’ hurbiltzen zaizkidanean, ‘eta bera sasikume bat!’ haserretzen natzaie. Ikuslea ez da tontoa. Alderantziz, gero eta jantziagoa da. Jaio denetik ari da irudiak irensten, irudiaren jendartean bizi da, inkontzienteki irudi horiek analizatzeko gero eta gaitasun handiagoa du. Nola ez dut sinetsiko ikuslearengan? Ikuslea arditzen eta astotzen duten elementuak badaudela? Ados, horregatik sartuko nuke zinema ikasketa programean. Irudiak irakurtzen ikasteak heziko gaitu, eta heziketak bihurtuko gaitu ikusle exigente”.



ikuslearen duen bitartean, jendearen filma ikusten dut nik. Hala ere, ez da ahaztu behar muntaia-mahaian bukatzen dela gidoia, casting txar batek gidoi on bat izorratu dezakeela, zuzendaritzak... Aldagai askok eragiten dute gidoiarengan. Horregatik diote maisuek gidoi on batekin film on zein txar bat egin daitekeela, baina gidoi txar batekin ez dagoela zereginik.

Inspirazioak ere ez omen du zereginik, lanik eta ofiziorik gabe.

Zinema egitea ekoizpen industrialia da, zuzendari edo ekoiztetxe batentzat egiten duzu lan, eta zure burutaziorik txepelenak milioi bat euroko kostua du. Uste duzu hori orrialde zuriaren aurrean zigarroari zupadak emanaz zer etorriko zain jartzearekin bateragarria dela? Ez diot lekurik uzten norbere burua engainatzea baizik ez den inspirazioaren mistikari. Bide horretan, deskubrimendua izan zen Gian Rodari-ren *La Gramática de la Fantasía* liburua.

Ordurako ohartuta nengoen nire irudimena lau bezain errepikakorra zela, eta irekidura hezten lagundu zidan. Geroztik, egitasmo berri bat hasten dudanero, argazkiekin, hitzekin, abezedarioekin edo eremu semantikoen ariketak egiten ditut berez sortuko ez litzaizkidakeen ideiak akuilatuz. Ez dago besterik, zure irudimena kutsatu ezean, beti urratzen dituzu bide berdintsuak, fite bihurtzen zara aspergarri.

Sinesgarritasuna da aspergarri ez bihurtzeko baldintzetako bat?

Sinesgarritasuna eraiki daitekeen elementu oso teknikoa da. Kontatzen duzunak sinesgarritasuna kanporatzeko poroak behar ditu,

ikusleak bere egiteko moduko benetakotasuna. Hori bai, denak ez du zertan erabat sinesgarria izan. Filmak tratu bat ixten du ikuslearekin eta, datorrena erakargarria zaiolako edo besterik gabe, ederki pasatzen ari delako, ikuslea prest dago sinesgaitza sinesteko. Uneoro zenbateko exigentzia maila duen neurtu behar du gidoilariak, non lotu behar dituen detaileak estu, noiz jokatu dezakeen lasaigo. Horregatik ez du film baterako ikerketa lanak zertan obsesiboa izan. Leprosoei buruzko pelikula bat egiteko ez duzu bi hilabetez leprosoekin bizitzera joan beharrik. Film hiper-errealista baterako ez bada, hegazkin bidaia batean ondokoa bi orduz entretekin beste ikertu behar duzula dio erretraiak, ez gehiago, ez gutxiago.

Kritika beti da hiper-errealista?

Badakit kritika garrantzitsua dela, irakurtzen dut, baina errespetu gutxi diot. Nolatan jar diezaioke film berari 0,5 nota batek eta 9,5 bestek? Subjektibismoaren alardea da hori, ez kritika. Hori gutxi ez, eta lotsagarria da besteen lana komentatzeaz bizi den norbaiten beste norbaiten azken bost urteetako hil ala biziko lana komunitate behera bota ahal izatea pulpitutik jaitsi gabe. Kritika bat agertzea aski da pelikula horri buruz esan beharreko guztiak esanda daudela pentsatzeko. Ez zait serioa iruditzen. Are gehiago, egun horretako iragarkiaren tamainaren arabera kritika hori luzeagoa edo laburragoa denean, zure hedabidearen komunikazio talde bereko enpresak ekoitzi duen filma larrutu ezin duzunean... Denek ez dugu gauza bera jokotan. “Egurtzen zaituztenean kasurik ez, baina laudatzen zaituztenean ere ez!” dio gidoilari amerikar batek. Agian, sarientzako ere balio

du formulak. Oso arriskutsuak dira gazte ematen badizkizute. Erabat nahastu zaitzaketek, zure arrastotik desbideratu. Zorionez, nik 50 urte beteta irabazi ditut irabazi ditudanak. Bizilagunek gidoilaria nintzela baieztatzeko balio izan didate. Orditik lasai agurtzen naute, ez naiz etxetik erosketak egitera soilik ateratzen den ustezko arma trafikazaila.

Kritikak, sariak, beti bigarren lerroan egotea... Nolakoa da gidoilariaren egoa?

Oso berezia. Gidoigintzatik bizitzeko apustuak ego indartsua eskatzen du, baina garbi izan behar duzu besteentzat egiten duzula lan, zure lekua ez dela alfonbra gorria. Gidoilaria eta gidoilariaren estiloa ikusezina badira, hainbat hobe. Nik badakit familia ugari bat atera behar dudala aurrera, ordaintzeko faktura mordoxka metatzen zaizkidala hilabete hondarrean, eta zorionez, ez zait lehen lerroa gustatzen. Nire hondar-aletxo duen pelikula bat ikustera noanean bost axola zait inork nire berri ez izatea. Pentsa, gehiegi agertzen naizela iruditzen zait, ukan beharko nukeena baino ospe handiagoa dudala. Ederki nago nagoen lekuan. Fokupean bizi nahiko banu neuk egingo nituzke filmak.

Fikzioa ere ederki zegoen ETBn, baina...

ETBrentzat lan egiten nuen sasoian, mahai-bueltako programa baten aukera iradokiz gero, "telebista egin behar dugu, ez txorakeriak!" asaldatzen zitzaizkizun. Orain, miseria baizik ez dut ikusten. Bilboko egoitzak CNNrena dirudien arren, baliabideak falta dira, baina batez ere, ez dago gure indarguneak neurtzeko gaitasunik. Zergatik ez da inbertitzen sormenean eta talentuan? Arriskatzen ez deno, gero eta telebista okerragoa izango dugu, gero eta grisagoa, bere sinesgarritasuna bere izatea kolokan jarri arte higituko duena. Bi urtez ikerketa eta kreatibitatearen aldeko apustu itsua egingo balitz, ordea, audientziek gora egingo lukete agian, beste telebistei programak saltzeko aukerak sortuko lirateke akaso... *Vaya Semanita*-rekin ez al zuten merkatua puskatu? Baina ez, bizitzako azken helburutzat ETBko zuzendari izatea dutenak jartzen dituzte agintzen, eta jende horrek ez du telebista bat zuzendu nahi, telebistako zuzendari izan nahi du. Ez dauka zentzurik. Talentua dutenak egunero lepoa jokatzen ari dira, eta jubilaziora arteko lanpostua ziurtatuta duten asko inolako pasio eta atxikimendurik gabe. Arriskatu behar dutenek arriskatu dezatela, behingoz. ■

Hitzmix

elhuyar

Euskara jolastuz lantzeko

LETREN SALTSA HITZ-PASA GURUTZATUAK BORTZ

Probatu, jokatu eta gozatu!

Google Play eta iTunes dendetan

Tabletarako aplikazioak (Android eta iOS)

eta zifrekin jolasteko...

JOKO BERRIA LAGUNTZA KREDITUAK

Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia Euzko Legebiltzariaren Gobernua

SAN BIZENTE IKASTOLA

Irakasle eta ikasleak notarik gabe elkarrekin ebaluatzen

Ohiko azterketen eta noten ordean, irakasle eta ikasleak elkarrekin ebaluatzen ikasten ari dira San Bizenten, aurtengo Araba Euskaraz antolatu duen Oiongo ikastolan. Ikasleak ardurak hartzen ari dira ikaskuntza prozesuan, eta irakasleek norabide berean egiten dute arraun.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |



IKASGAIA IRAKURRI, irakasleari entzun, talde-lanak aurkeztu, azterketa egin eta nota bat jaso. Ikaskuntza prozesua horrelakoa izan ohi da. Ikasleen ezagutzak zelanbait kalifikatu egiten dira, baina edukiak eta gaitasunak benetan barneratzen ote dituzte ikasleek? Ebaluazioak zertan lagun dezake ikaskuntza prozesua hobetzen? Oiongo San Bizente ikastolan ebaluazio hezigarria lantzen ari dira, ebaluazioan oinarritutako ikaskuntza. Iraultza handia izan da ikastolarentzat, eta pozik daude emaitzekin: irakasleek ebaluazio irizpideak adostea lortu dute; ikasleek berriz, ikaskuntza prozesuan ardurak hartu dituzte. Kontzientziazko dira, ikasgelara zertara doazen, bai irakasleak, bai ikasleak.

Duela hiru urte hasi zuten egitasmo berezia San Bizenten. Lan egiteko modua erabari aldatu dutela azaldu du Gema Berzal ikastolako zuzendariak: “Argia eman digu honek.

Lan handia dago egiteko, baina bagabiltza”. Formazio saioak egiten dituzte klaustroan, Maria Galdeano Ikastolen Elkarteko Ebaluazio eta Hobekuntza arduradunaren laguntzaz. Galdeanok azaldu duenez, irakasleen galdera gakoak aldatu dira: “Zer irakatsi behar dut?” galdera egitetik, “zer ikasi behar dute eta zertarako?” galdera egitera pasa dira, fokua irakaskuntzatik ikaskuntzara aldatuta. Oiongo ikastolan eta Euskal Herriko beste hiru ikastolatan dabilta ebaluazioan oinarritutako praktika hauek garatzen.

Ebaluazioa ikas-prozesuan integratzen

Maria Galdeanoren hitzetan, “edozein irakatsi-ikaskuntza egoeratan hiru prozesu argi izatea klabea da ikaskuntza hobetu nahi baldin badugu”. Hiru prozesu horien kontzientzia izan behar dute irakasle zein ikasleek: Ikaskuntzan

non dago/nago?; nora joan behar du/dut?; eta zein da biderik onena ailegatzeko?. Galdera horietan oinarrিতuta, bost estrategia ari dira lantzen: helburuak eta arrakasta irizpideak argitzea eta partekatzea; eztabaida eta jarduera eraginkorrek sortzea ikaskuntza ebidentziak lortzeko; *feedback* eraginkorra eskaintzea, ikasleek elkarrekiko irakaskuntza baliabide izateko; eta ikaslea norbere ikaskuntzaren jabe izateko praktikak sustatzea.

Helburuak finkatzea. Hori da irakasleek egin beharreko lehen lana. Klaustroan erabaki bateratuak hartu behar dituzte, xede zehatz eta argiak jaritzeko. Orain arte hizkuntza alorreko ikasgaiekin egin dute proba, eta datorren ikasturtean matematikekin hastekotan dira. Batez ere Lehen Hezkuntzan aplikatu dute. Ikasleek ikasiko dutena eta garatuko dituzten gaitasunak definitzea da kontua, eta gero ikasleei helburu horien berri ematea. Ikaskuntza prozesuan, ikasle eta irakasleek argi izango dute zer gaitasun landuko diren, eta ebaluazioan ere elkarrekin egongo dira. Ikasleek euren burua ebaluatzeko eta hobekuntzak nola egin erabakitzeko aukera izango dute.

“Irakasleek ez dute azterketen beharrik ikasleak ebaluatzeko. Azken batean, notaren atzean zer egon beharko litzateke, amaierako proba batean lortutako emaitza ala prozesu guztiaren garapena?”

Maria Galdeano, irakasle formatzailea

Ikaskideak baliabide

Galdeanok azaldu duenez, ikaskideen arteko lana garrantzitsua da: “Irakasleekin baino gehiago ikas dezakete euren ikaskideekin, eta gainera, zailtasunak dituzten ikasleek bezainbeste ikasten dute zailtasunik ez dutenek ere”. Ikaskideak eurak, ikasteko baliabide bihurtzen dira eta lan kooperatiboak sustatzen dira.

Ikasleen autoebaluazioa

Irakasleek klaustroan adostu dutenez, ikasleek ere badakite zein den euren ikaskuntza prozesuaren helburua, eta zer arrakasta irizpide diren klabeak helburua lortzeko. Orduan, irakasleek eskaintako tresnekin autoebaluazioa egiten dute, eta gai dira helburuak lortzeko irizpideekin zailtasunak izan dituzten ala ez identifikatzeko. Ebaluazio horretan laguntzeko, irakasleek jardueran ikusitako ebidentzia positiboak eta hobetu ahal direnak azaltzen dizkiete ikasleei. Ondo egindako aspektuak azpimarratzen dituzte, eta hobetu daitezkeen kontuak identifikatu eta zelan hobetu ditzaketan adierazi. Ebidentzia edo froga horiek zeintzuk diren jakinda,





Torre de Oña, norberaren izaerari eustearen balioa. Jatorrizkoa

Torre de Oña Arabar Errioxako eremurik pribilegiatuenean sortutakoa da. Bere lursailik onenean, non bere mahastiek aparteko lurralde baten esentzia eskaintzen baitigute: bere-berea, berriztatzailea eta gaur eguneko. Besterik ez den bezalakoa.

TORRE DE OÑA

www.torredeoña.com

Jarrai gaitzazu:  





Ebaluazio hezigarriaren baitan, irakasleen galdera gakoak aldatu dira: “Zer irakatsi behar dut?” galdera egitetik, “zer ikasi behar dute eta zertarako?” galdera egitera pasa dira.

ikasleek jarduerak hobetzeko aukera dute. Noten bidez funtzionatu beharrean, iruzkinen bidez egiten dute ebaluazioa. Azterketa hitza bera ez erabiltzeko asmoa dutela azaldu du ikastolako zuzendariak. Galdeano formataileak ere hori nabarmendu du: “Irakasleek diote ez dutela azterketen beharrik; ikasleak ebaluatzeko nahikoa ebidentzia jasotzen dituzte bestela ere. Azken batean, notaren atzean zer egon beharko litzateke, amaierako proba batean lortutako emaitza ala prozesu guztiaren garapena?”. Orain arteko sistemarekin, ikasleak ebaluatu beharrean kalifikatu egin dira: “Kalifikatu, sailkatu, egiten dira, eta

hori ezin da izan ebaluatzeko modua derrigorezko hezkuntzan, ez baitu ikaskuntzaren hobekuntzarako aukerarik ematen”.

San Bizenten ezin da eskua altxatu

Irakasleak gelakideei zerbait galdetu, eta dakienak eskua altxatu. Ikasgeletan oso errotuta dagoen ohitura da eskua altxatzea. San Bizenten, bada, ohiturak aldatu nahi dituzte: ezin da eskurik altxatu. Galdeanoren berbetan, “irakasleek zoriz aukeratzen dute nork erantzungo duen, baina ez ditugu erantzun zuzenak bakarrik entzun gura, ikasle guztien erantzunak entzun nahi ditugu, egokiak eta okerrak”. Gelako ikaskide guztiak inplikatzeko bermatu gura dute horrela, eta bide batez, ikasleek edukiak ondo ulertu dituztela ziurtatzea.

Ikastola barruko hobekuntzak

Oiongo ikastolan beste urtebetez edukiko dute ebaluazioa ardatz duen formazioa. Lan-ketaren parte, eta euren lana ebaluatu eta zer hobetu jakiteko, behaketak egiten dituzte ikasgeletan, bi behaketa ikasturteko. Ikaskuntza ibilaldiak deitzen diete behaketa horiei.

Ebaluazioan oinarritutako proiektuarekin hasi zirenetik, aldaketak igarri dituzte. “Ikasgeletako giroa aldatu egin da, baita ikasleen rola ere, erabat”, dio Galdeanok. Orain, ikasleek euren ikaskuntza prozesuaren kontzientzia handiagoa dute eta prozesu horren ardur hartzen ari dira. Irakasleak ere pozik daude esperientziarekin: “Filosofia bateratu batetik, nahi dugunera joan gaitezkeela ikusi dugu”, adierazi du Berzalek. Oiongo ikastolako zuzendariaren hitzetan, Ebaluazio Diagnostikoan ikasleen emaitzak nabarmen hobetu dira.

Horrela lan eginda, ikaskuntza prozesua hobetu dutela ziur dira Oiongo irakasleak, eta ikasleen autonomian aurrerapausoak lortu dituzte. Galderak erantzuten ikasten ari dira, batez ere gako diren galdera bi: “Zer ikasiko dugu?” eta “zelan dakigu ikasi dugula?”. ■

apaindura **KIDE**
mobiliario

Beheko Harresiak 27 · 01001 Gasteiz
☎ 945 14 41 95

Azpea
Jatetxea-Restaurante

ARDO EKOLOGIKOAK
Lumbier (Nafarroa)
☎ 948 880 433
www.bodegasazpea.com

**LIZARRALDE SOINUA
TXALAPARTA, S.L.**

SOINU PROFESIONALA
MEGAFONIA

bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz

Tel. / Faxes 945 226 977 • txala@txala.euskalnet.net • 01012 GASTEIZ



"Euskarari kolorea
emanez"

EUSKARA

kolore bizia!

euskaraba.com
arabako euskararen ataria



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶

www.alava.net



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Periferien periferietara iritsi da aldaketa

ESPAINIAN izan diren udal eta autonomia erkidegoetako hauteskundeak aldaketa garrantzitsuak ekarriko ditu mapa politikoan nazionalismo periferikoen “periferia” diren Balear Uharteetan, Nafarroan eta Valentzian. Hiru erkidego horietan eta Galizian, bertako alderdi abertzaleek ez dute gehiengorik osatzen eta normalean oposizioan daude, horrek beraien hizkuntza eta nortasunak garatzeko izaten duen oztupoarekin. Espainiar nazionalismoak ondo daki erkidego autonomo horiek direla nazionalismo periferikoen kontrako borrokan lehenengo lubakiak. Horregatik, espainiar nazionalistek aniztasun linguistikoaren eta identitarioaren aurkako borroka bortitza egiten dute.

Nafarroan gobernu berriak erregimenaren aldeko blokea higatu beharko du. Ez dago formula bakarra eta daudenen artean asmatzea ez da erraza. Aukera bat da koalizio ahalik eta zabalena osatzea: Geroa Bai, EH Bildu, Podemos, PSN eta Ezkerra

Lau autonomia erkidego horietan, eskuin nazionalista espainolak erregimen itxiak eraiki ditu, bere politika baztertzailerak ustelkerian eta sare klientelistetan oinarriturik. Baldintzotan kosta egiten da aldaketa politikoa lortzea eta lortu izan denean, 1991tik bi aldiz Balearretan eta behin Galizian, erregimena aldatu nahi zutenek ez dute asmatu bi legealdi jarraian egoten aldaketa kontsolidatzeko. Hiru faktorek esplikatzen dute atzerabuelta: kudeaketa alderdikoiak (alderdi bakoitza bere botere esparruaz arduratzen zen gobernuan integrazio eta proiektu komun falta nabarmen batekin); mobilizazioen gainbehera (ezinbestekoa erregimena sostengatu duten botere mediatiko, politiko eta ekonomikoei aurre egiteko: gobernuak bi aldetatik presioak baditu joko politikoan zentratu ohi da); eta erregimeneko blokea higitzeko estrategia falta.

Erregimen aldaketa gehienek, prozesua atzerazina izan dadin, erregimeneko zenbait sektoreen parte-hartzearekin egiten dute aldaketa. Horregatik, Nafarroan gobernu berriak erregimenaren aldeko blokea higatu beharko du. Ez dago formula bakarra eta daudenen artean asmatzea ez da erraza. Aukera bat da koalizio ahalik eta zabalena osatzea: Geroa Bai, EH Bildu, Podemos, PSN eta Ezkerra. Sinesgarriagoa da ordea EH Bildu kanpoan gelditzea, udal txeko garrantzitsu gehienek gobernu kontrolatuz eta kanpotik babes kritikoa emanaz. Horrela nafar gobernu zentratu egingo litzateke bi aldetako oposizio batekin: alde batean, eskuin nazionalista espainola (UPN eta PP) eta beste aldean, eskuinetik etorriko diren presio mediatiko eta politikoen aurrean orekatze lana egingo lukete EH Bilduk eta gizarte mugimenduek. Horrez gain, gobernu berriak hautesleriaren parte batean frustrazioa edota haserrea sortuko balitu, EH Bildu izan zitekeen erregimena aldatzearen aldekoen atsekabea bideratzeko hauteskunde tresna.

Hipotesiarekin jarraituz, PSN joko horretan parte hartzeko prest balego, “peaje” interesgarriak ezarri dakizkioke, adibidez Nafarroa osorako euskararen ofizialtasuna onartzea. Horrelako neurri bat ez da gauza bera Parlamentuko botoen %52arekin hartzea edo %66arekin. Atzerabuelta ezintasunerako oinarri sendo bat litzateke bi hereneko gehien goa, bestela, oraingoan aldatetaren aldekoak 26 diren bezala, biharkoan 24 izan daitezke. Erregimen aldaketa sendotzeko komenigarria da lehenago edo berandago bi diputatuen aldea handitzea.

Alta, badirudi PSNk ez duela nahi erregimen aldaketan parte hartu. Horrela bada, erregimena aldatzeko borondatea duten alderdien esku geratuko litzateke koalizioa osatzeko lana eta erregimenaren soziologia politikoa higitzeko lana; adibidez, integrazio maila handiko gobernu bat osatuz sentsibilitate politiko desberdinetako prestigidun pertsona independente ugariarekin, ahal bada PSNtik gertu dagoen norbaitekin ere bai. ■

Demokrazian lehendikoz
Nafarroako Gobernua, nazionalisten esku

SEI HITZETAN
HIRU GEZUR

BAT: ez da Lehenbiziko aldia


Barcina, Santz, Alli, Otano Urralburu, del Burgo...
00005000 nazionalistak ziren 000000

BI: ez dugu Goberhurik

4 diputazio probintzial 2 protektoratutan bereiz
+ departamendu adosatua balizik

HIRU: Demokrazia?

espainiar monarkia borbonikoaren pean
eta demokrazia? Boto handiagoa!



DANI BLANCO

Mikel Basabe

IRAKASLEA ♦

IVAP-HABE-EGA-HEO

LETRA-ZOPA horren atzean helmuga bakarra dute milaka herrikidek: euskara agiria. Berdin die, gainera, zeinetan lortzen duten: C1 maila da helburua, eta erakunde horietako edozeinetan egiaztaturik lortutako tituluak balio berbera izango du Euskal Autonomia Erkidegoan. Jaurlaritzaren baliokidetzeez taulan agertzen dira guztiak (baita gehiago ere: Osakidetzarenak, Ertzaintzarenak, Justizia Sailarenak... Horiek aipatu ere ez ditut egingo aurrerantzean). Gehienetan, urtean deialdi bi egiten dira: udazken-neguan bata, udaberri-udan bestea. Oker ez banago, Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu aipaturiko azterketa guztiak.

Kontuz, baina! IVAPen aurkeztu ahal izateko, funtzio publikoko langilea izan beharra dago. HABEren azterketa egin ahal izateko, euskaltegi homologatu bateko ikaslea izan behar da. Hizkuntz Eskola Ofizialetan

azterketa egin ahal izateko bertako ikasle ofiziala izan behar du azterketariak, autonomia erkidegoan C1 ez baita libreentzat eskaintzen (Nafarroan bai, ostera: bitxia). Bakarrik EGA dago edonorentzat zabalik; urtean aukera bi daude Euskararen Gaitasun Agiria lortzeko: otsailean edo irailean hasita. HABEk ere,

aukera bi: maiatzean edo urrian. IVAPe ere urtean aukera bi ematen dizkie funtzio publikoko langileei. Hizkuntz Eskola Ofizialetan, ekain eta iraileko deialdiak dituzte ikasle ofizialek, batere aukerarik ez libreek (nahiz eta gainerako hizkuntzetan baduten. Eta ez dit balio EGArako aukera dutela esateak: ingelesean

Advanced azterketa egiteko aukera ere badute, baina ingeleseko C1 libreentzat ere eskaintzen da).

Nire ustean, azterketen kontua txarto antolaturik dago. Titulu guztiak balio bera dutenez eta antolatzailea erakunde bera denez, deialdiak bateratu egin beharko lirateke, eta edonori eman parte hartzeko aukera, euskaltegiako ikasle izan zein ez, funtzio publikoan lan egin zein ez. Horrekin batera, deialdiak urtean zehar banatu beharko lirateke: urteko sasoi bitan metatu beharrean, euskaran C1 maila egiaztatzeako aukera hil biren behin eskaini beharko litzateke,

azterketariak erabaki dezan ahalegina noiz egin gura duen, noiz datorkion hobeto, eta presio gutxiagorekin egiterik izan dezan.

Ez baita ulertzekoa deialdi gutxiago egotea Euskal Autonomia Erkidegoan euskarazko C1 maila egiaztatzeako, ingelesezko maila bera egiaztatzeako baino. ■

Azterketen kontua txarto antolaturik dago. Titulu guztiak balio bera dutenez eta antolatzailea erakunde bera denez, deialdiak bateratu egin beharko lirateke, eta edonori eman parte hartzeko aukera, euskaltegiako ikasle izan zein ez, funtzio publikoan lan egin zein ez

JULE GOIKOETXEA



Kattalin Miner



KAZETARIA

Besarkadak

HAUTESKUNDE AURREKO kanpainan, CUPen spot bat ikusi nuen non emakume ahots batek Ovidi Montllorren *Serà un dia que durarà anys* poema errezzitatzen duen artean, ezin adierazgarriagoak diren irudi batzuk agertzen diren.

Bideoaren ideia inozentea da itxuraz, sinplea: eszena diafano batean bi lagun sartzen dira, genero, jatorri, arraza, kultura... anitzetakoak eta haien artean besarkatzen dira, batasun hori adieraziz edo. Bideoaren amaieran ordea, argiak ilundu, musika sakon eta baxu bat sartu eta neska bati gorbatadun gizon bat datorkio besarkada ema-

tera. Une horretan, eta atzetik datozen beste hainbat gorbatadunei, sekulako astindua ematen die neskak. "Historia aldatuko dugu", dio leloak, eta bideoa amaitzen da.

Ez da ez kasuala irudi hori erabaki izana bozka aurreko kanpainarako, izan ere, David Fernandezek eman zuen besarkada hark CUPe nor besarkatu nahi duen eta nor ez birpentsatzea ekarri du. Gurean besarkadak dabilta dantzan orain, eta "ez inoiz bizkarrik eman besarkatzaile onari", diote haiek. Ez ahaztu, besarkatzaile onen atzetik, labankadak ere etortzen dira maiz. ■



Iñaki Murua

◆ BERTSOLARIA

Urratsak

IZENBURUAN JARRITA, gehienok pentsatzen dugu, gure burura lehenik etorri zaigun esanahia ez dela izango. Xinpleegia, ahulegia, nabariegia... Zer ote dago hain hitz ohikoaz idaztea burura datorkion norbaiti? Ur-hatsa ote? Urrezko hatsa agian?

Hauze pentsatu eta egin: zer da bizitzan harrotasun handiena ematen diguna geuri eta geure gurasoei? Gure lehenengo urratsa(k)! Eta behin, berriz, hirugarrenez eta n garrenez emanarazten digute hain misterio ezkutukoan gordeta eduki dugun abileziaren frogia.

Nola ez, guk, dobleko ahoa betetzen duen irribarrearekin, behin eta berriz burutzen dugu eskaria eta besoak zabalik dituen harengana, ttapala-ttapala erortzen uzten dugu gure soin xamurra, balantxaren bat egiten badugu ere, eutsiko diguten ziurtasun osoz. Horrela ekiten diogu amaiera jakinik gabeko ttapalaldiari. Denok onartzen dugu eroriko eroriko ikasiko dugula urrats ziurrak ematen. Agian, laster batean, baita lasterka/korrika egiten ere.

Aurten ere, Senpereko lakuaren jiran, herri bat sentitu nuen bere hizkuntza mihian dantzan zuela. Bai. Batzuek euskara eta besteek erdarak. Aurkezpen eki-

Alferrikako urratsak, elkarbizitzarako eraikitzaile ez direnak saiheste aldera, nik proba egingo nuke, herriak ordezkari politikoak "demokratikoki" hautatzeko jasan behar dituen kanpainak hain irudimen, tonu, gizalege, maila, eragin... ezkorra izanik, ea ez egiteak zenbat on dakarren neurtzen

taldian, luzeena aritu zirenak frantses hiztunak izan ziren eta, ekitaldi hartan egoteagatik soilik onartu genielakoan nago luuuuuzatze hura. Eta irribarretsu, adarjotzaile, umorez blai, zirikatzaile... aritu ziren gonbidatuak. Eta nola ez, aurkezlea!

Mihiaz, oinez, patxadaz, prezaz, bide-lasterrean edo lasterbidean, urratsak eman zituzten/genituen; urrun gaudenon arteko urratsak baina batera eta elkarrenganantz, bidean aurrera egiten genuen bitartean. Aspaldiko jendetzarik handiena iruditu zitzaidan putzu sakon eta ilun bat izan zen hartatik, ur gazi bat atera nahian, euskara itsaso urdin bihurtzeko ametsen. Eguna, eguraldia, giroa hartarako zeuden; hala egin dugu urteetan eta ados gaude: nahi eta behar dugu. Eroso, urratsak ematean arinago bezala sentitzen nintzen; gogo bera geneukan jendez inguraturik, babesturik. Ez dakit hala zen edo ez!

Hurrengo egunetan baina, bakoitza putzuaren alde banatan ari ginen, agirika, orroa jario, zaunkalari... Ez zegoen urratsak ematen hasi besterik parekoak besoak zabalik hartuko zintuelakoan! Edonork zure deskuidu ttikiena balia zezakeela zirudien, zangoztraba egin eta putzu ilunean itolarriak jota, begirada begibala bihur zekizun. Eta sentipen hau amaitu ordez handitzen ari da. Egunero entrenatzen gara/gaituzte elkar larrutzeko laguntzeko ordez.

Alferrikako urratsak, elkarbizitzarako eraikitzaile ez direnak saiheste aldera, nik proba egingo nuke, herriak ordezkari politikoak "demokratikoki" hautatzeko jasan behar dituen kanpainak hain irudimen, tonu, gizalege, maila, eragin... ezkorra izanik, ea ez egiteak zenbat on dakarren neurtzen. Hau ere noizbait elkarrekin urrats ez urrats proposatu eta egin beharreko bidea izan daiteke, ala? Ea elkar urratzera ordez elkarrekin urratzera bideratzen gaituzten, behingoz! ■



Danele Sarriugarte

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Akelarre bat gaur

BARTZELONARA NINDOALA-ETA, bospasei kidek arrapaladan eta biziki agindu zidaten Sophie Calle-n erakusketa ikustera joateko. Artista kontzeptual deitu izan dute Calle eta, eremu labainetan irrist ez egiteko makulu nahiko ukaezin bati helduta, esango dut batez ere argazkigintzan ibilia dela.

Ezer gutxi nekien bere obraz eta aretoko langileek ibilbidearen planoa eskuratu zidatenean baino ez nintzen jabetu nondik zetozen nire gomendio-kideen konplizitate-irribarre haiek guztiak. Callen obra ezagun bat zegoen han, *Prenez soin de vous* (2007), artistari bidali zioten abandonu-email baten bueltan eraikitako pieza. Mezua jaso bezain pronto serio demonio hartu zuen Callek izenburuan doan agur-lerroa eta bere burua sano zaintzeko asmoz jarri zuen martxan makinaria sortzaila: 107 profesional andreri birbidali zien emaila, beren alorreko tresnekin jorra zezaten.

Horrelaxe, ikusleak topo egiten du minutu eta erdi inguru bideo batekin: erritmo onean eta borroka-martxak antzeratuz dantza egiten neska sendo bat, soinekoa horia eta adatsa aske, aurpegia estaliz. Topo egiten du, plazer ezin gustagarriagoz, hizkuntza-zuzentzaile baten interpretazioarekin, alegia, emailarekin berearekin, tinta gorritz goitik behera zirrimarratua. Topo egiten du, Criminal Minds-eko artega burutik ezin kendu, kriminologo baten analisiarekin, eta irakurtzen joan ahala barre txikia sortzen zaio, adituak ondorioztatzen baitu gutun-bidaltzailea (izenik gabea) ukaezinki dela berekoi kronikoa: “Ni” hitza 30 aldiz agertzen da 23 lerro eskasetan. Topo egiten du, algara betean jada, finezia-adituaren lanarekin, emailako esaldi bakoitzaren ostean parentesi artean txertatzen baititu bere dardo apur bat esnob baina ironia ezin dotoreagokoak.

Honezkero zeharo puztuta dabil gure ikuslea, urde egolatra horren kontrako mendeku kolektiboak hor-dituta, ausart ematen diona buelta hitz kamutsek ezin ezkutatutako koldarkeriari. Harik eta 107. piezara iritsi arte.

Idazlea mintzo, ziurrenik andreekin baino gizonekin askoz hobeto moldatzen den horietako bat, absolutuki eta arrazoiketa sakonagorik gabe, gutxiespenik sekula onartu ez duena eta bere erabaki hutsez baino ez dituen hor beheko biloak brasildar erara moztzen, hala nahi duelako eta ederragoa delako bere uste apalbaina-ezerk-baldintza-ezin-dezakeenean. Ekarpena, gutun bat Calleri: leporatzen dio artista sonatua izanda ere maite kontuei garrantzia handiegia ematea, gizon batekikoak bihurtzea bere bizitzaren erdigune, andreak oro bai baitaude gizonekin obsesionatuta, artelanaren abiapuntuak eta garapenak argi uzten dutenez. Horren erantzukizuna, errua, dena delakoa —adi, klasi-

koak datoz— andreen bizkar?

Tema horren jatorriaren harira idazleak txintik ez baitio, noski. Betidanik hor egon den naturaren parte izanik oro, alu depilatuen estetikotasun berezkoa kasu, okurrirru ere ez kontraesanak arakatzeara: hain justu kapital kultural nahiko sendoaren jabe den batek, horren arabera-ko maila ekonomiko oparora ere izango duenak seguru asko, zergatik bizi du hain min haustura erromantiko

bat?; susmatu ere ez akaso andre-gizonen arteko harremanetan desira-aldagaia sartzean arrasto bat narrasten direla mendekotasun-dinamikak kudeatzearen eta ahalduntzearen kontuak. Baina, batez ere, usaindu ere ez sorginen elkartasuna, ahizpek bat egiten duten akelarre garaikidea, obraren helburua ez baita huts-hutsean kuxkuxeatzea eta ez baita gutun-bidaltzailea suntsitzea, ezpada taldean elkar hartuta norbera boteretzea. ■



Antton Olariaga

«Euskaldunon komunitatea egin gabe dago, guk egin behar dugu»

Izarra, 1943. Filosofian eta medikuntzan lizentziatua. Donostian bizi da. XXVI. Becerro de Bengoa saiakera saria (Arabako Foru Aldundia) irabazi zuen iaz, *Euskaldunon komunitatea, independentziaz haratago* saioari esker. Bere sortzetiko lurraldean izan da saritua.

MIKEL ASURMENDI


Argazkiak: DANI BLANCO |

“IDEIEN BIDEA EZ DA BAT-BATEKOA. Luzea da. Ideien ikuspegia aldatzen baitoa. Pentsalariari gehiago kostatzen zaio ideien berritasuna izatea literaturagileari baino. Pentsamenduaren bilakaera mantsoa da, prozesua eta aldaketa literaturarena baino mantsoago da”, adierazi digu solasaldiaren abiaburuan Galo Martinez de la Pera saiogileak.

Nondik nora *Euskaldunon komunitatea, independentziaz haratago* saioa? Zer xedetan?

Euskaldunon pentsamendua bi poloren artean jirutzen da: politikaren eta euskararen inguruan. Ni ere ardatz horien artean mugitu naiz betidanik. Liburua ETaren borrokarekiko kritikoa nintzelako hasi nuen idazten. ETaren borrokak, eta borroka iraultzaileak oro har, bi alde izan ditu: batetik sentimendu iraultzailea, pertsonaren eta herri baten iraupen nahiari ekiteko beharrezkoa, bultzatzen eta sortzen laguntzen dioelako. Baina, bestetik eta aldi berean, sentimendu hori pertsonarentzat eta herriarentzat kaltegarria bilakatzeko da, ideologia iraultzailea denboraren poderioz herriaren opioa bihurtzen da. Gurean ere horrela izan da. Sentimendu iraultzailea izugarria zen herri honentzat, baina aldi berean herriaren droga eta dogma bihurtu zen. Kontraesan hori argitzea izan dut helburu. Sentimendu iraultzailearen bidean abiatu nintzen beste eremu bat aurkitzeko. Eremu hori euskararen eremua da.

“Jaia komunitatearekin lotuta dago. Jaia euskaldun komunitatearen nukleo sortzailea litzateke. Hori azaltzeko idazkeraren teoria ulertu behar da, horretarako idatzi dut saioa”.



Noren laguntzaz edo zein bideetan ibili zara?

Sentimendu iraultzaileari atxikiz betiere, eremu politikotik eremu linguistikorako bidea urratu nahi izan dut. Helburua banuen, baina bidea asmatu behar nuen. Eremu berri hori aurkitzea, horixe nuen koska. Eremu politikoa begi-bistakoa da, euskaldunon hizkuntz eremua ez hain agerikoa, ordea. Bada, bertsolariak agertu ziren eta haiei esker aurkitu nuen bidea. Ni ez naiz bertsozalea, aspertu izan naute, goxo esanda. Beharbada, zaila zaidalako ulertzea. Niretzat bertsolariak betidanik izan dira... “ulertzeko” erronka. Ni oso ilustratua nintzen eta bertsoak behe-mailako espresio bezala ikusten nituen. Pentsamendua liburuaren bitartez espresatzen zitzaidan. Ordea, bertsolariari esker idazkeraren auziarekin topo egin nuen. Galdera hauxe egin nion nire buruari: hauek ba al dakite idazten? Galdera horren inguruan Harvardeko teoriak agertu zitzaizkidan. Hubert Parry eta Eric Havelock aztertu nituen, besteak beste. Poliki-poliki hasi nintzen idazkerari buruz pentsatzen, baina benetan bidea ireki zidana Darwin izan zen. Ez dakit nire pentsamendua egokia den ala ez, baina nire berritasuna darwinismoari lotuta dago. Hau da, idazkeraren oinarri ebolutibo bilatzea izan dut xede. Nire lana darwinismo berria garatzea izan da idazkeraren egitura ulertzeko. Darwinismo sozialaren antzeko zerbaitek garatzea, darwinismo kulturala eta historikoa, nolabait.

Eta zer aurkitu duzu?

Idazkerari buruzko teoria horren bidez saiatu naiz jaiaren ahalmena eta ezaugarriak aztertzen. Lehen esan bezala, hasieran borroka zen, sentimendu iraultzailea, eta nik sentimendu hori jaiarekin lotu beharra ikusi dut. Hori aztertzen hasi nintzen garaian borroka iraultzailea sentimendu oso sendoa zen, jende askok ikusten zuen borroka horren beharra. Jaia borroka egin ondorengo atseden unea izan da, eta ez herri baten nukleo sortzailea. Alde horiek idazkeraren bidez argitzen edo ekartzen saiatu naiz.

Zer ikusten duzu jaiaren nukleo horretan?

Jaia komunitatearekin lotuta dago. Jaia euskaldun komunitatearen nukleo sortzailea litzateke. Hori azaltzeko idazkeraren teoria ulertu behar da, horretarako idatzi dut saioa. Idazkerari buruzko bi argibide emango ditut: teoria orokorraren arabera, hasieran hitza edo mintzoa zen, eta gero idazkera agertu zen. Ikuspegi horren arabera, idazkera mintzoaren lanabesa da, hizkuntza lantzeko tresna. Hain justu ere, nik kontrakoa defendatzen dut: hasieran

idazkera dago eta honen bitartez gizakion hitza agertzen da. Ikuspegi horrek zibilizazioen dogma apurtzen du, honen arabera idazkera bakarra grafikoa baita. Zibilizatuaren ustez bertsolariak ez dakite idazten. Nire teoriaren arabera, berriz, idazkera hasieran ere bazegoen. Idazkera bakoitzak jendarte mota bat sorrarazten du. Idazkera akustikoak edo ahokotasunak komunitate horizontala sortzen du eta komunitate horren nukleoa jaia da. Idazkera grafikoa boterearen idazkera da eta jendarte hierarkikoa sortzen du, estatuaren bidez sortu ere, eta horren nukleoa lana da. Euskaldunon komunitatea sortu nahi badugu, bidea eta eremua jaiarena da.

Erraza dirudi bidea azaltzeak.

Bai, baina... Beti badago bainaren bat. “Liburua amaitutakoan hasieran jakin behar nuenaz jabetu naiz”, zioen Nietzschek. Bada, niri nolabait ere hori gertatu zait, bidea urratu ahala beste modu bat aurkitu nuen jaiaz adierazi nahi nuena jendeari ohartarazteko. Hau da, azaldu nahi dudana jaia gure Korrika da. Mistikoez meditazio lan luzea eta argialdia bereizten dituzte. Niri hori geratu zait. Korrikaren espiritua liburuan dago, baina hitzaldi batean jabetu nintzen jaia ulertzeko Korrika dela laburbidea. Korrikan dago jaiaren funtsezko osagaia. Korrika ekitaldia eta fenomenoak ulertzea oso erraza da: korrikan sartzean sentitzen duzuna, horixe da nik adierazi nahi dudana. Hitzetan azaltzen ez da erraza, baina jende guztiak dioenez, Korrikan sentitzen dena berezia da.

“Euskara oparia dugu. Euskararekiko sentimendu handia da. Bide horretatik politikaren eremuan eragiteko posibilitatea ikusten dut, eta aldi berean komunitate berria sortzeko”

Liburuaren izenburua hizpide, XXI. mendean komunitatearen erabateko independentzia irudikatzea zaila da, hartara, “ez-dependentzia” aipatzen da orain. Zein da kontzeptu horri buruzko zure aburua?

Politikaren eremura etorrira: independentzia hitzari buruzko zalantza handiak ditut. Izan ere, mundu honetan zer da independentzia? Nik euskaldunon komunitatea indartzea nahi nuke edo hori proposatzen dut. Euskaldunok subiranotasun ahalik eta gehiena nahi dugu. Hori lortuz gero, politikan edota nazio-eremuan, independentzia handiagoa edo ez-dependentzia lortuko dugu. Hala ere, euskaldunok itxaropen guztia politikan jartzen badugu, ez dut burujabetasun handiago lortzerik ikusten. ETArekin akatsa ez da soilik izan indarkerian geratu izana, gure indar eta itxaropen guztia politikan jarri nahi izatea baizik. Herri baten iraupena sakratua da komunitate batentzat, politikan jartzen badu-

zu itzaropen guztia, herri horrek boterearen legepeko indarkeriarekin topo egingo du beti. Politikaren legea boterearen legea da, armen edo bestelako bitartekoen bidez. Herri txikiok bereziki beste bide bat aurkitu behar dugu. Politikan jardun behar dugu noski, baina beste erara jokatu behar dugu. Alde horretatik, euskara oparia dugu. Nire ustez, euskararekiko sentimendua handia da. Bide horretatik politikaren eta nazioaren eremuan eragiteko posibilitatea ikusten dut, eta aldi berean komunitate berria sortzeko.

Euskaldunon komunitatea kanpoko komunitatearekin abegikortasuna adierazi beharra hobesten duzu.


Bi gauza: euskaldunon komunitatea egin gabe dago, guk egin behar dugu. Eta komunitate hori kanpotarrekin ere egin behar dugu, hori lortzen ez badugu, akabo. Behar-beharrezkoa zaigu. Noski, immigrazio legeak eta beste hor daude, desegokiak dira, politikaren eta politikarien jokoa dago tartean, baina guk denok biltzea lortu behar dugu. Jaiaren bidea oso egokia da horretarako, Korrikaren lengoia alegia. Mundu guztiak ulertzen du hori, eta denok parte hartu dezakegu.

Gure esku dago ekimena ere hobesten duzu bide horretan.

Gure esku dago ekimenari sinpatia diot, ibilia naiz inguruan. Ekimena aipatzen dut liburuan, baina nazio mailan eta politikan gartzen da, Korrika aldiz ez. Korrika komunitatearen eremuan kokatzen da, ezberdina da. Espiritua bera da, baina nik politikaren eremua (Gure esku dago) eta komunitatearena (Korrika) bereizi nahi ditut.


Burujabetasuna lortzeko bidean, batzuk historiari berebiziko garrantzia ematen diote, Orreaga taldeak adibidez. Zer iritzi duzu horretaz?

Ni ez nago ildo horretan. Memoria historikoa kontuan hartu behar dugu, noski, eta behin



“Korrika komunitatearen eremuan kokatzen da, ezberdina da. Gure esku dago ekimenaren espiritua bera da, baina eremu politikoan kokatzen da. Nik politikaren eremua (Gure esku dago) eta komunitatearena (Korrika) bereizi nahi ditut”.

hartuz gero, historiaurretik hasita. Baina bai euskaldunon komunitatea bai nazioa, dena egiteko dugu, egin gabe dago. Gaur egungo komunitatea egituratzeko gutxi balio digute iraganeko gertakariak. Tira, balio zaizkigu kokatzeko. Hau da, oroimen historikoak ondo doazkie estatu-nazio handiei: Ingalaterrari adibidez. Historia kultural, politiko eta militar gaitzak dituelako, baita Frantziari eta Espainiari ere. Baina gure historia eskasa da, eta gainera azken mendeetan azken bi horiekin batera egin dugu bidea, menpean, alboan edo kontran. Iragana ezagutzea beharrezkoa da, baina etorkizunari begira zerbait berria behar dugu. Esate baterako, Joseba Sarrionandia bide horretatik doa, nik uste. ■



Bizitzeko manierak

Atzera begirako baten aitzakian, hobeto ezagutu ahal izan dugu Sophie Calle (Paris, 1953). Argazkilaria, idazlea, artista, *Modus vivendi* erakusketan bildu diote azken 30 urteotako obra. Artea bizitzeko manera edo, zehatzago, manierak, hotz baino beste edozer gisaz utziko zaituztenak.

| ARITZ GALARRAGA |

JULIO CORTAZARREK badu ipuin bat, *Deabruaren lerdea*, non agertzen den Roberto Michel, frantziar-txiletarra, itzultzailea eta afiziozko argazkilaria bere orduetan. Kanean bikote bat ikusi du ausaz, ikus zezakeen bezala lagun talde, zakurrarekin pasiatzen den nerabe edota familia alegera bat. Baina bikotea harrapatu du —edo bikoteak harrapatu du bera, auskalo—, eta hortxe dago zain, petrilean eserita, ia konturatu gabe argazki kamera prestatuz argazki pintoresko bat ateratzeko. Atera bitartean, ordea, bikotearen balizko bizitza eta mirariak irudikatuko ditu Michelek, xehe. Jon Alonsoren itzulpenean: “Ez naiz deus deskribatzen ari, ulertzen saiatzen ari naiz bakarrik”.

Pixka bat da Sophie Calleren obra ezagunenetako batzuekin gertatzen dena: adibidez, aliritzira, gizon desberdinei argazkiak ateratzen dizkienean atzerriko hirietan; adibidez, lagun eta ezagunak gonbidatzen dituenen bere ohera, gero lotan erretratua egiteko; adibidez, jende ezezaguna hasten denean jarraitzen kanean, inolako aurre-estrategiarik gabe, jarraitze hutsagatik. Bere lehen lana izan zen azken hori, 1978an: “Ez neukan egiteko ezer hoberik. Aspertuta nengoen aspertuta egoteaz. Azkenerrako ulertu nuen nire burua jarraitzen aritu nintzela”. Jendeari gustatu zitzaizkion argazkiak. Bartzelonan eta Buenos Airesen ditu erakusketak orain.


Voyeur esan izan diote batzuek. Beste batzuek esan izan diote exhibizionista. Bada, voyeur eta exhibizionista, biak batera esan izan dionik ere. Ez du horietatik ordea. Ez behintzat gainontzeko guztiok baino gehiago. Baliabide ustez autobiografi-

Voyeur esan izan diote batzuek Sophie Calleri bere obrarengatik. Exhibizionista beste batzuek. Baliabide ustez autobiografikoak erabiltzen ditu, baina horrek ez dio sekula diskurtso artistiko bat eraikitzea oztopatu.

koak erabiltzeak ez dio sekula diskurtso artistiko bat eraikitzea oztopatu. Kontrara, esana utzi du elkarrizketaren batean: “Nire bizitza erabiltzen dudanean ez da nire bizitza, paretan zintzilikatutako obra bat baizik. Gauza arruntetik datorren poesia da interesatzen zaidana”. Calleren lanak ez baitu zerikusirik intimitatearekin: “Nitaz dena dakiela uste duena, erabat okerturik dago. Nire lana nire intimitateetik sortzen da, bai, baina ez du inoiz agerian uzten. Gainera, mundu guztiak ahaztu egiten du nire proiektuen erdiak ez duela nitaz hitz egiten, besteez baizik”.

Muga horien baitan, edo, hobeki, muga horiekin jolasean daude Calleren obretarik asko. Luze gabe, garrantzitsue-
na: *Prenez soin de vous*, 2007koa. E-posta bat jaso zuen artistak, bere bikotekidearena, zeinean bikote harremana hautsizat ematen zuela jakinarazten zion gizonak. “Zaindu zaitez”, ematen zion akabua. Ez motz, ez nagi, zainduko zela erabaki zuen, 107 emakumeri pasa zien testua, bakoitzak beretik interpreta zezan —epaile, igarle, estilo zuzentzaile, zerbitzu sekretueta-ko poliziak zeuden tartean—. Hauxe sexologoaren erantzuna: “Depresioaren aurkako pilulak hartzeko motiborik ez dut ikusten. Gertaera malerus batek min eman dezake, baina soluzioa ez da kimikoa”. Emaizta, aldiz, ezin ikusgarriagoa; eta zalantzan jartzen dizu, segun ze kasutan, e-postaren erabilera.

Kontua da, esperientziaren eremuan kokatzen dela Calleren obra. Norbere nahiz besteren esperientzian. Izan daiteke bizitakoa nahiz kontatutakoa, erreala nahiz fikziozkoa, zuzenekoa



nahiz geroratua, iragan nahiz etorkizunekoa, amestutakoa nahiz desio izandakoa. Eta artearen baitara ekarri dituela simulakroa eta itxura, limurkeria eta begirada, fikzioa eta oroitzenak, sarkinkeria, espioitza, jarraipena eta iruzurra, jarraitzaile izatea eta jarraitua, begiratzaileria eta begiratua. Orainaren arkeologia da Calleren, eta kalea du tailer.


Nor da Sophie Calle

Istorioren egile, *faiseuse d'histoires*, deitu zion Herve Guibert idazleak. Baina nor da zehatz hainbeste argazkitan hain modu diferentetan agertzen zaigun emakumea? Paper bat jokatzeko ari den aktorea? Artista bat pertsonaia baten antzezpenean? Artista beste pertsona batez mozorrotua? Artista bere buruaren interpretazioan? Edo artista, unean uneko, bere horretan?


Paul Austerren *Leviatan* eleberriko pertsonaia bat, Maria Turner, Sophie Calle artistaren trasuntua omen da: “Artista zen bera, baina egiten zuen lanak ez zuen zerikusirik normalean arte gisa definitzen ditugun lanak egitearekin. Batzuek esaten zuten argazkilaria zela, beste batzuek kontzeptualista esaten zioten, beste batzuentzat idazle bat zen, baina definizio horietako bakar bat ere ez da zehatza, eta azken buruan uste dut ezin dela inolaz ere sailkatu. Bere lana burugabezia zen, pertsonalegia ezein bitarteko edo diziplina jakinetan sailkatzeko. Ideia batek bereganatzen zuen, proiektuetan lan egiten zuen, arte galerietan erakutsi zitezkeen emaitza konkretuak zeuden, baina aktibitate hori ez zen jaiotzen hainbeste artea egiteko desio batetik, ez bada bere obsesioei men egiteko behar batetik, bere bizitza nahi bezala bizitzetik”. “Ez naiz ni”, aitortu zuen behin Callek; “ni puskaz eroagoa naiz”.

Galdetu izan diote inoiz arte feminista egiten ote duen. “Ez da aldarrikapenik izan nire lanean”. Aitu direnek aitortzen diote, ordea, emakumea agerrarazi izana artean. Ez berari bakarrik, noski. Baina emakume musaren paper tradizionalki pasiboa baliogabetu zuten, ama eta prostitutaren polarizaziotik harago zihoan eredu ordura arte ezezagun bat sortu zuten, genero gailenei bizkar eman zieten, pinturari eta eskulturari, besarkatzeko argazkilaritza, bideogintza edota performancea. “Hala ere, esaten didatenean, konplimentua da niretzat”.

Hilobi bat erosten agertzen da Calle berari buruzko dokumental batean, Bolinas, Kalifornian. Dena den, heriotzaz baino gehiago ez ote duen hitz egin absentziak, galeraz, gabeziak. Cortazarren ipuin hartako pertsonaia hark esango balu bezala, “ez naiz deus deskribatzen ari, ulertzen saiatzen ari naiz bakarrik”. ■



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu




euskara, zure frekuentzian

Dakiguna erakutsiko dizugu

- **HITZALDI SORTA**
Udako Euskal Unibertsitatea
Ekainak 15, 16, 17
Oihaneder Euskararen Etxea
Inf. +: ueu.eus
oihanedereuskararenetxea.eus
- **Xtra-Club Gazteak**
 - **HONDARTZAKO POLTSA KUSTOMIZATU**
Ekainak 12, 18:00-20:00
Lakuako GE. 12-18 urte
3,40 €*
 - **ETXEKO IZOZKIAK**
Ekainak 13, 18:00-20:00
Ibaiondo GE. 12-18 urte
3,40 €*
 - **IRTEERA: HOSSEGOR (LANDAK)**
Pilareko GEko liburutegia
Ekainak 20, 08:00-20:30
12-18 urte. 20 €*
[*udal instalazioetako bazkideek %40 desk.]
- **Dantza Plaza**
Ekainak 12, 20:00. Plaza Berria
Ekainak 19, 20:00. Sefarad plaza (Judimendi)
- **Topaketak, hitzaldiak, zinema...**
 - **KAPITALA (LE CAPITAL)**
Costa-Gavras 2012, 114'
Ekainak 11, 19:00
Filmazpit. Oihaneder Euskararen Etxea
 - **IGANDEAK JAI**
Mariturri ikastetxea
Arkakusoaren zirkoa, 17:00
Abilezia jolasak, 18:00
 - **IZAN PIRATA**
Proiektzioa eta eztabaida
Ekainak 17, 19:00
GEU. Oihaneder Euskararen Etxea
 - **ZINEMA HARRESIAN**
Uztailak 3, 10, 17
Kontzertua 21:30 + pelikula 00:00
Falerina lorategia eta harresia
Info +: oihanedereuskararenetxea.eus
- **Musika**
 - **TIKARA**
Jimmy Jazz
Ekainak 12, 22:00
 - **AKORT**
Parral taberna
Ekainak 16, 20:30

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Literatura

Poesia kaiera
 Sophia de Mello
 Itzulpena: Iñigo Roque
 Susa, 2015



Fingidorea eta gero

EDO EGIAREN BILA maskaren bitartez etengabe ari den norbait, Sophia de Mello (Porto, 1919-Lisboa, 2004), Camões saria 1999an, esteta hutsa, Munduko Poesia Kaiaren koordinatzaile Beñat Sarasolak gartzigatzen digu: “De Melloren poema ugarik dute halako kutsu transzendental. Epifania bat azalera-tzen dute, hau da, munduaren supituko errebelazioa, eta gisa horretan lortzen da ailegatzea munduaren zerizan funtsezkoenera. (...) Izan ere, Emily Dickinsonek bezalatsu, De Mellok ez zuen bazter urrunetan bilatzen munduaren zerizana, ezpada arra eskas batzuetara”.

Goi jatorriko Sophia de Mello Breyner Andresen bizkorrari hiru urterekin neskameak errezitatu ei zion *A Nau Catrineta*, eta erromantzea buruz ikasi zuen, eta hortik beharbada hasi zen eraikitzen eite iraunkor eta musikaltasun tradizionalako bere obra zabala. Berak esana da, obsesioa zuela hitz bakoitza izatea beharrezko poeman zeina poema egin eta gero hustearen teoriaren kontra baitoan: de Mellok ez du alferrik idazten hitz bat; berba hori beharrezkoa bada ekarriko du poemara. “Hitzak ezin dira adornua izan, ez dute izan behar denbora irabaztea endekasilaboa burutzeko”.

Sophia de Mellok aukeratzen du beraz hitz hau eta ez hori, ematen dio bere poesiari tonu zehatz

hau eta ez beste bat. Horregatik kaiera hau irakurtzea da Yourcenar irakurtzea, edo Juana Inés de la Cruz, betirako irudiak dakartzalako: “Lorategi, lorategi galdua/ Ene zango-besoek inguratzen dute zure absentzia.../ Hostoek batak besteari esaten diote zure sekretua,/ Eta ene maitasuna isilekoa da nola den izua”. Orain Grezia orain japoniar gustuko elipsi eta sotiltasunak, idazleak esan barik uzten duena da irakurlearen barruan dardara egiten duen hori, hain zuzen. Sinestunek irakurtzen duten bezala testu sakratu bat, hala sartu naiz ni bere fedez idatzitako poesia laiko honetan, non kontraste polita egiten baituten hitzen izariak eta esanahiaren errealismo itzelak: “Nahiz hondakinak eta herioa diren/ Beti ilusio guztien amaia,/ Ene ametsen indarra denez indartsuen,/ Orotatik birtortzen da goretzi-nahia/ Eta ene eskuak ez daude sekula hutsik”. Arean naif suerta daiteke gai historiko sozialetara egiten duenean –*Erbestea, Lorcaren bilobia*...– baina hitzen aukeraketatik bakarrik, kolore eta freskotasun klasikoagatik baino ez bada ere, merezi du tarte bat egin eta de Melloren munduetan galtzea. ■

Igor Estankona



Remigio Mendiburu

Formaren eraikuntza

Oteiza Museoa
 2012ko ekainaren 14tik urriaren 7ra

FUNDACIÓN MUSEO ENLAZADO MÚSICA
 Nafarroako Gobernua
 SISTEMA DE MUSEOS DE NAVARRA
 Ligantzailea: kutxa gizarte ekintza
 C/ de la Cuesta 7 - 31486 Alzuza - Tel: 948 332074 - Fax: 948 332066 - info@museooteiza.org - www.museooteiza.org



Moyua
 hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-gipuzcoa.com



Cabeza voladora

Same old

Bonberenea ekintzak, 2015

Sasoiko itzuli dira



INDAR HANDIA transmititzen dute Same Old taldearen kantuek. Rock progresibo aireak, kutsu epikoko giroak, eta pasarte iradokitzaileak eta hunkigarriak entzun daitezke *Cabeza voladora* lanean –binilozko disko bat eta CD bat–. Taldekideek indar handia erakusten dute musika tresnak jotzeko eta kantatzeko garaian. Karlos Osinaga arduratu da diskoaren grabazioaz, nahasketez eta ekoizpenaz, eta lan ederra egin du Bonberenea estudioetan.

Doinuak ongi osatuak eta apainduak daude. Rock kantuek dira, mid tempo erritmoak, baina kantu pare batek –*Cabeza voladora* eta *Frente comun*– erritmo biziagoa dute. Gitarren marrazkiak, ñabardurak eta xehetasunak kantuetan nonahi entzun daitezke, eta teklatuaren notek eta akordeek ederki jantzen dituzte kantuek.

Hitzak oso landuak dira. Harremanak, aske sentitzeko, bizitzeko eta izateko nahia, eguneroko bizimodu petraletik eta betiko ohitura aspergarrrietatik ihes egiteko gogoak, koldarkeria, zabarberia, zikoizkeria, zurikeria, itxurakeria eta beste hainbat kontu dituzte hizpide.

Same Old taldea Gasteizkoa da. Gaztelaniaz eta euskaraz kantatzen dute. Jose C. Porras (ahotsa), Dani Arrizabalaga (bateria), Jesus Villalabeitia (gitarra), Danilo Foronda (gitarra), Francisco Orlando (teklatuak) eta Federico Egiluz (baxua)

dira taldeko kideak. Danilo Foronda taldeko musikari berria da, lehendik jadanik gainerako taldeki-deen laguna zen, eta Miguel Angel Cle gitarra jotzailearen ordez hasi da taldean.

Cabeza voladora lana duela aste batzuk argitaratu du Bonberenea Ekintza zigiluak, apirilaren 22an, hain zuzen. Taldeak beste bi disko dauzka kalean *Contrafacto* (2007) eta *Traidor, inconfeso y martir* (2010). 2012ko urriaren 12an taldeak *Traidor, inconfeso y martir* diskoko 4 kantu zuzenean grabatu zituen Westline estudioetan, Juan Blas teknikariarekin, audioan eta bideoan, eta Ramon Marc Batailler saxo jotzailearekin.



Same Old duela hamabi urte inguru sortu zen. *Cabeza voladora* argitaratu aurretik bi urte inguru isilik eta geldirik egon da, baina ilusio, gogo eta indar handiz bueltatu da. “Orain, gure bizi lerroak berriz ere elkartu dira, eta gehien atsegin duguna egiten dugu berriz ere, jo, jo eta jo, asmo handirik gabe”, taldekideen hitzetan.

Taldea indarberriturik itzuli dela eta sasoian dagoela nabari da *Cabeza voladora* laneko kantuek entzunez gero, eta hori sumatuko dugu han eta hemen egiten diren jendaurreko emanaldi bat ikusten badugu. ■

Joxi Ubeda

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Alda Faciok esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


	6	1	3	2				7
8	7	2	1	9	5			
		3	7					5
2	5				3			
7	8					9		4
			9				8	2
9					6	7		
			5	3	9	4	1	8
1			4	7	2	6		

Zaila

			2					7
			1	8		2	3	
	6					5		
	7				8			4
		2	5		1	7		
6			9					2
		8					1	
	1	3		4	6			
5						9		

5x5


Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.- Heldu (Bizkaieraz).
- 2.- Zaintza.
- 3.- Zuhazpeko babesgune.
- 4.- Ur mineral berozko bainua.
- 5.- Hegazti mota (pl).

Erronboak

Erantzunek zenbaki bakoitza inguratzen dute, gezia ateratzen den laukitik hasita eta haren noranzkoa jarraituz.



1. Atalburua.
2. Aukera.
3. Alderantziz.
4. Etortzeko agindu.
5. Sorospen.
6. Euskaraz ez dakiena.
7. Maltzur, azpisuge.
8. Gidatu.

Soluzioak

Puzzlea: "Pakistango enbaxadoreak leporatu zidan emakumeen aurkako indarkeria feminista asmakizuna zela gizonzuek jendartean duen positioa ahultzeko".
5x5: 1. 1. Obatu, 2. Babes, 3. Abarro, 4. Terna, 5. Usoak.
Erronboak: 1. Atalburua, 2. Abagunera, 3. Alderantziz, 4. Deitaz, 5. Laguntza, 6. Erdaldun, 7. Desial, 8. Bideratu.

5	6	1	3	2	4	8	9	7
8	7	2	1	9	5	3	4	6
4	9	5	3	4	6	7	1	8
7	1	8	6	5	2	9	3	4
2	5	9	4	8	3	6	7	1
3	4	6	9	7	1	5	8	2
6	8	4	2	1	6	7	5	3
9	8	4	2	1	6	7	5	3
2	1	3	8	4	6	9	7	5
1	3	5	4	7	2	1	9	6
6	9	2	3	1	9	6	8	2

Telesailak, gizartearen ispilu

NEIGHBOURS telesail Australiar eza-gunak 30 urte bete ditu aurten. Bertan, Erinsborough izena duen fikziozko aldiri bateko bizilagunen egunerokoa ikus dezakegu: eskola, ospitalea, tailerra, hotela, denda, taberna... bertako gizarte islatzen da azken finean. Interesgarria iruditzen zait, oso, nola lantzen diren gizarte gaiak gaur egungo telesailetan. Gai konkretu batzuk zer erraztasunekin jorratzen diren leku batzuetan, eta gai berbera, beste herrialdeetan aipatze hutsa ezinezkoa bihurtzen den. Askok estereotipoetara jotzen du, baina besteak aldiz, gizarte horren trapu zikinak aireertzeko erabiltzen dute, baita kritika mundu osora zabaltzeko ere.

Argi dago, gaur egun, telesailak mugarik gabeko fenomeno globala direla. Genero eta gai desberdinak ahalik eta ikusle-sorta gehiena harra-patzeko asmoarekin lantzen dira. Eta nola egiten da hori? Gakoetako bat, gidoiaren barneko pertsonaia eta kokalekuak lantzerako garaian, ikuslearengan enpatia sortzea da, identifikatuak sentitzea alegia. Horretarako ezinbestekoa iruditzen zait trama poliziakoaren azpian, fantasiako munduen barruan edo beldurrezko pasarteen muinean, gizarte-gaiak lantzea. Modu sotilean herrialde konkretu horren erradiografia erakustea, alegia.

Borgen, Bron/broen, Forbrydelsen, Äkta människor eta herrialde nordikoak

Lau telesail hauek erakusten dute gaur egungo egorearen kritika zorrotza telebista produktu zentzudun eta entretenigarri baten bitartez egin daitekeela. Lau ekoizpenetan, argi eta garbi ikus dezakegu, guztien begietatik idealizaturik dauzkagun gizarte nordiko horietan ere, badela ustelkeria. Bertako gizartearen alderdi ezkutua horri buruzko hausnarketa sakon bat egin daitekeela, estereotipoetara jo gabe: klase borroka, diskriminazioa, xenofobia, maitasuna, bakardadea, zahartzarora, adiskidetasuna eta gizakia beraren definizioa bezalako gaiak, maisutasunez uztartzen dituzte.

Black Mirror, Happy Valley eta Erresuma Batua

Hasteko, bi telesail hauek, bertatik datozkigun ekoizpenak kalitatezkoak, motzak eta biziak direla frogatzen duten bi adibide nabarmen dira. Baina, batez ere, istorio entretenigarri bati gizarte kritika zorrotza gehitu diezaioketuela erakusten dute. Alde batetik mundu osora estrapolatu daitezkeen teknologia berrien erabile-



Zer harreman dute telesailak sortu diren herrialdeko gizartearekin? Herrialde bakoitzean asmatu dituzte formulak egoera soziala pantailara eramateko. Argazkian *Black Mirror* telesail britainiarra.

ra txarrak izan ditzakeen ondorio larri eta konponezinak. Eta bestetik, trama poliziako eta bahiketa baten aitzakiarekin, drogen inguruko eta horien ondorioei buruzko hausnarketa errealista eta gordina egin daitekeela.

The Wire, Breaking bad, True detective eta AEB

Louisiana, Baltimore eta Albuquerque, horiek dira hiru telesail hauek lantzeko erabili dituzten hiriak. Hasieran aipatu dudana erradiografia hori maisutasunez landu dute, hiriak eurak tramaren barneko pertsonaia bihurtuz. Ez dut uste kasualitatearen eragina izan denik drogak, ustelkeria, gaixotasuna eta krimena bezalako gaiak leku konkretu hauetan garatzea.

Goenkale eta Euskal Herria

Ezer gutxi esan daiteke adibide horri buruz, nabarmena baita zer eragin izan duen telesail honek euskaldunontzat. Kasu honetan, Arralden gertatzen dira gorabehera guztiak, Euskal Herriko kostaldean kokatzen den fikziozko herri arrantzale txikian. María Luisa, Txapas, Joxe Mari, Boga Boga eta Barsobia gure kultura telebisiboaren zati bilakatu dira. Egunerokotasun handiko telesaila izan da, errealitatearekin kontaktuan egon dena, modu batean gizartean bizi dugun normalizazioa islatu duena. Eragin hori antzemateko, bitxikeria moduan, duela urte batzuk harakin elkarteak, faltsututako haragiaren inguruko trama bat kentzeko eskatu zuen eta auzia Parlamentura iristeko zorian egon zen. ■

Gaizka Izagirre



Euskal Herria ezagutuz

ZUIAKO KUADRILLA- GORBEIA (ARABA)

Sekretua begi-bistan

Burua eta gorputza, biak osasuntsu izatea gero eta zailagoa zaigula bistakoa da. Bizitza sedentarioa eta estresagarria bateratzen dituen egunerokotasunaren ajeei buelta ematea ez da erraza, eta formula magikorik zein errezeta mirakulutsurik ere ez omen dago. Araban dagoen Zuiako Kuadrilla-Gorbeia, baina, errealitate neketsu horri ihes egiteko salbuespena dugu. Pila oro kargatzeko bateria ekologikoa. Eta ez du sekreturik: bera da sekretua.

| AITOR KALTZAKORTA |

Argazkiak: Zuiako Kuadrilla-Gorbeiak utziak

INDUSTRIGUNE NAGUSIETATIK aparte, baina Bilbo zein Gasteiztik ordu erdira, neke oro grina bihurtzeko gaitasuna duen gotorlekua dugu, tente-tente. Gorbeia mendiaren bi isurialdeak, kondaira, tradizio eta istorio zaharren iturri izateaz gain, aztikeriarik gabe sorgintzen duten txoko liluragarri andanaren habia ere badira.

Funtsean, edonor txundituko lukeen ingurune geografiko eta biologikoa da ingurumari horien erakargarri nagusia. Finean, baina, bertan belaunaldiz belaunaldi eta mendez mende sortzen joan den basogintzari, abelazkuntzari eta

nekazaritzari lotutako biziak jarri dio berezko xarmari txapela, eta erakarpen handiko eskaintza turistikoa erdietsi du eskualdeak.

Araba eta Bizkaiaren arteko mugan harro altxatzen den tontor lerroaren isurialde batean, hegoalde-
ra begira, Zuiako Kuadrilla-Gorbeia dugu –Arabaren eskualdeei ‘kuadrillak’ esaten zaie—. Bestean, kostaldeari begira, Arratia-Nerbioi. Zein baino zein ederrago, lehiarik gabeko deman bizi dira elkarren ondoan.

Eskaintza zabala

Urkiolako eta Gorbeiko parke naturalak inguruotako berdegune-

rik ikusgarrienak direla kontuan hartuta, ulertzekoa da mendizaletasuna eta espeleologia izatea kirol eta aisialdiko jarduera nagusiak.

Gorbeiko mendigunea Euskal Autonomia Erkidegoko parke natural handiena da. Ehunka ornodun espeziekin egin du habia bertan, eta garai bateko haritzen orde, pagoa da egun basootan protagonista. Zuiako udalerrian dago parkearen Arabako isurialdeko informazio eta harrera zentroa. Muruan (Zigoitia) aldiz, Las Canteraseko aisialdi-gunea aurkituko dugu, Gorbeia gailurreranzko abiapuntu nagusienetako bat, beste ibilbide askoren artean.

Aisialdirako aukera ugari eskaintzen dute Zuiako Kuadrillako urtegiek, bai Urrunagakoak (ezkerreko argazkian) bai Uribarri-Ganboakoak.





Ezkerrean, Euskal Eltzegintza Tradizionalaren Museoa, Elosuko Ollerias auzoan. XV. mendetik aurrera erabilitako 380 herri zeramikako pieza daude ikusgai bertan. Eskumako argazkian, Gorbeia tontorreko gurutzeta.

Espeleologiari dagokionez, Mai-ruelegorretako (Zigoitia) leizeak ikusgarriak dira. Kobazuloko galerietako batzuk, 12.340 metro luze-rarekin, Euskal Herriko sakonene-takoak dira. Goiuri-Ondonako ur-jauzia ere galdu ezinezko gelto-kia da. Urkabustaiz udalerrian dago eta 100 metrotik gorako ur-jauzi ederrak bertaratzen diren bisitariak txunditzen ditu.

Aisialdirako gune eta instalazio ugari dituzten Urrunagako (Legutio) edo Uribarri-Ganboako (Arratzua-Ubarrundia) urtegiatan patxadaz goiza pasatu eta bazkaldu ostean, Murgiako Ezti Museoa bisitatzea plan bikaina da gose askorik jasan gabe Gorbeialdeko eztingileen jardue-ra ezagutu eta dastatzeko. Aldiz, ez

da tokiko tradizioaren berri ematen duen museo bakarra. Ollerias auzoan (Elosu), izan ere, Euskal Eltzegintza Tradizionalaren Museoa baitago. XV. mendetik aurrera erabili diren herri zeramikako 380 pieza daude ikusgai bertan. Bisita gidatuak egin daitezke 1711n ireki zuten eta 1993an berreskuratu zuten Ortiz de Zarate familiaren eltzegintza taile-rraen barrena.

Gorputzari atsedena edo astindua emateko, alta, badira bestelako planak ere. Gorbeia Central Park turismo ekimenak eskaintzen dituen esperientziak probatzea gomendio hobezina da.

Izarrei begira afaltzea, egun baterako artzaina izatea, txirrin-duan osteria egin ostean hamaiteta-koa hartzea, tokiko produktuak dastatzea, gauez animaliak ikustera ateratzea... egitasmo honek eskaintzen dituen planetako batzuk dira. Hontza Extrem Abentura Parkean ordea, ariketa da protagonista. Zuhaitzetako ibilbideez gain, arku-tiroa eta zuhaitzetako eskalada egin daitezke.

Aberastasun artistiko eta arkitektonikoa

Arkitekturaz ere gozatu daiteke inguruotan. Murgiatik hiruzpalau kilometrorra Oroko Santutegia dago. XI. mende bukaera eta XII. mende hasierara arteko zurezko eliza erro-manikotik deus geratzen ez den arren, egungo eraikinak XIV-XV. mende hasierako eraikina du oinarrian. Barruan, erretaula barrokoa –1691n erabaki zuten berau egitea–, Kristo Santu Gurutziltzatuaren kapera (1771) eta San Antonio Paduakoaren omenezko kapera (1638) aski ikusgarriak dira.

Legutio eta Aramaio ere hirigune historikoak dira eta eraikin esanguratsu andana dituzte ikusgai. Horiek ezagutzeko modurik onena, Oroko Santutegiarekin eta Gorbeialdeko beste leku askorekin gertatzen den modura, bisita gidatuak dira. ■

Informazio gehiago

- www.gorbeiaeuskadi.com
- Bisita gidatuak: 945 24 38 28
- Turismo Bulegoa: 945 43 04 40 / 945 43 01 67 (Murgia)



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.



Gorbeia
www.gorbeiaeuskadi.com

TURISMO BULEGOA:
(GORBEIAKO HEGOALDEKOA)
MURGIA
945 43 01 67
945 43 04 40



Zuiako Kuadrilla
Cuadrilla de Zuia
www.cuadrillazuia.com






ARABA | ALAVA
GOZAMEN | DA GUSTO!
EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Garoñako zentral nuklearra 2016an martxan jartzetik hurbil

ESPAINIAKO Industria Ministerioak maiatzean argitara emandako 2015-2020rako sektore elektrikoaren planifikazioaren ingurumen jasagarritasuna txostenean aurreikusten da Garoñako zentral nuklearra 2016an energia elektrikoak produzitzen hasiko dela. Ministerioak baimena emanda omen du 2031 arte zentralak funtziona dezan.

Erabaki horrek ez du esan nahi automatikoki zentrala zabalduko denik, baina horren aldeko jarrera politiko garbia adierazten du. Oraindik bi aldagai argitu behar dira. Batetik, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak oniritzia eman behar du, eta baliteke horretarako inbertsio berriak eskatzea zentralaren jabeek. Bestetik, zentralaren jabeen, hots, Iberdrola eta Endesaren borondatea dago. Erabakia hartze aldera, bi faktore aztertuko dituzte: errentagarritasun ekonomikoa eta gizartearen presioa.

Hori guztia kontuan hartuta, esan daiteke gauzatzear dagoela zentral nuklearren produkzio aldia 40 urtetik 60 urterako zabalpena. ■



DANI BLANCO

Intsektuen begien egitura kopiatzen

Bizidun ugarienek, intsektuek eta artropodoek, gizakiek ez bezala ikusten dute mundua. Gure begiak norabide bakarrekoak dira, haienak aldiz, milaka begi txikiz osaturiko egitura konplexuak dira. Horietako bakoitzak gutxi ikusten badu ere, guztiek elkarturik ikuspegi panoramiko izugarria ematen dute. Horretan oinarrituz, AEBetako unibertitate batean lehen begi konplexua sortu dute.

ttiki.com/339750
(Frantsesez)

Uste baino izotz urtze handiagoa Antartikan

Berotegi efektuaren eraginez Artikoan dezente egin du atzera izotzak, baina ez da horrela izan Antartikan: han izotzak aurrera egin du. Hala ere, geruzak gero eta lodiera txikiagoa du azken ikerketen arabera. Antza, itsasoko ur korrante beroek dute horren errua.

ttiki.com/339752
(Gaztelaniaz)

Europako eguzki zentral handiena, laster lanean

CLEMESSEY



BORDELETIK hogeit hamar kilometrora dagoen Sestàs herrian Europako eguzki zentralik handiena izango dena eraikitzen ari dira. Urrian zabaltzea espero dute.

300 Mw-ko ahalmena izango duen zentralak urteko 350 GWh ekoiztuko du, hau da, Bordeleko populazioak erabiltzen duen beste. 260 hektareako lur eremua hartuko du -300 futbol zelai-, eta altzairuzko eta aluminioz-

ko euskarriak dituzten 16.500 mahaitan 983.500 eguzki panel kokatuko dira.

Sortutako energia 4.000 kilometroko kable bidez konektatuko da sare elektriko nagusira.

Ikusten denez beste arrazoi bat gehiago dugu euskal herritarrok iparraldera begiratzeko eta ez hegoaldera. Garoñakoak eta Sestàsekoak, antzeko potentziako sistemak izanik, ildo estrategiko antagonikoak ordezkatzen dituzte. ■

Opah, aurkitutako lehen odol beroko arraina

Opah arrain ezaguna da zientzialarientzat. Hala izanik ere, orain arte ez dira konturatu arrainak, hegalak astiro higituz, gorputza eta odola berotu ditza-keela. Hori abantaila nabarmena izan daiteke beste animalien aldean, arrisku egoerei aurre egiteko garaian adibidez.

ttiki.com/339753
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Kafea kondentatzen saiatu zen erregea

SUEDIA, 1674. Kafea lehenengoz iritsi zen eskandinaviar herrialdera. Mende laurdenez inork gutxi dastatu zuen edari berria, baina XVIII. mendeko lehen urteetan modan jarri zen suediar aristokraziaren eta intelektualetan artean. 1746an, errege ediktu baten bidez, kafe kontsumoa mugatu zen, “erabilera okerra eta gehiegikeriak” saihesteko. Kafearen gaineko zergak igo zituzten hasieran eta, aurrerago, erabat galarazi zuten. Baina, Europako gainerako herrialdeetan bezalaxe, kafe kontsumoak gora egiten jarraitu zuen erresuman.

Ez zen kafearen inguruko lehen debekua; 1675ean, Karlos II.a Ingalaterrakoak kafetegiak ixteko legea promulgatu zuen, baina ez zen sekula indarrean jarri. Kontua da Ingalaterrako erregea ez zela kafeak osasunean izan zitezkeen ondorioen beldur, kafetegietako tertulia politikoei bere gobernuaren egonkortasunari eragin diezazkioketen kalteen beldur baizik.

Suediako gortean, aldiz, substantzia bera zen kezka, bereziki 1771n Gustavo III.ak agintea lortu zuenetik. Erregearen ustez kafea osasun publikorako arriskua zen, eta edari iratzargarrria pozoitsua ere bazela egiaztatu eta herritarrei jakinarazi nahi izan zien, esperimentu baten bidez.

Garai hartan espetxeak balizko giza akuriz beteta zeuden, ohikoa baitzen presoek zigorra barkatzea edo arintzea berme eskaseko esperimentuetan parte hartzearen truke. Erregearen ordezkariak heriotzara kondenatutako bi anai biki topatu zituzten Gustavo III.aren kafeari buruzko teoria frogatzeko. Batek tea edango zuen egunean hirutan; besteak kafea. Eta bi sendagile izendatu zituzten bikiei osasun azterketak egiteko.

Urteak joan ziren eta kafea edatera derrigortutako bikia sasoiko zegoen oraindik. Izan ere, esperimentuarekin zerikusia zutenetan, erregea bera izan zen hiltzen lehena. 1792an berak eraikiarazitako Stockholmeko operan tiro egin zioten, eta handik hamabost egunera hil zen, balak kafea baino hilgarriagoak direla frogatuz.

Proiektuko bi medikuak hil ziren ondoren eta hortxe amaitu zen esperimentua. Kaianders Sempler eta Alon



ALEXANDER ROSLIN

Gustavo III.a Suediakoak (1746-1792) kafea osasunerako kaltegarria zela frogatzeko ahalegina egin zuen, baina esperimentuaren porrota ikusi baino lehen hil zen.

Y. Halevi historialarien arabera, tea edaten zuen bikia 83 urterekin hil zen, artean kafea edaten zuen anai bizirik zela, eta haren heriotzaren berririk ez dago.

Kafea pozoia zela frogatzeko esperimentuak porrot egin zuen, 1820ko hamarkadan edaria legeztatu zuten arte Gustavo III.aren ondorengoek kontsumoa debekatzeko egindako ahalegin guztiek bezalaxe; gaur egun, suediarrek munduko seigarrenak dira per capita kafe kontsumoan. ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko, Geure modura.



www.bizkaia.net



 **Irakurleak galdezka**

Kaixo Jakoba. Argazkietan ikus daitekeen hagina basotik ekarri nuen etxe ondora, artean landare txikia zela. Ongi zaintzen dut eta urte gutxian izugarri handitu da. Orain beheko adarrak kendu nahi dizkiot, baina ez dakit noiz moztu behar ditudan, eta ez diot kalterik egin nahi. Aholkurik?

Pedro Igoa (Etxarri Aranatz)



Kaixo Pedro. Hagina (*Taxus baccata*) indarrean dago! Inausteari buruz, jakin behar den lehenengo gauza hau da: haginak beti izango du behe-beheko barrenetik hasi eta enbor guztian adarrak emateko joera. Berezkoa du eta ezaugarri horri eutsi egingo nioke nirea balitz. Behetik hasi eta adarrez jantzia da hagin naturalaren itxura onena. Adarren batek enbarazu egiten badu, muturra moztu, baina ez enborretik bertatik. Muturra bakarrik kendu. Kimaketa hori ekainean egin. Urtean bitan egin behar izanez gero, bigarrena irailean. Beti ere ilbeheran. ■



Kepa Ellauri | Altzusta, 38 ZEANURI (Bizkaia)
☎ 686 07 77 96 | www.ellauri.com

Pesia eta zirimola

USAIN PESIA DARAMA, udaberrian, haizeak zirimolan. Etengabeko txandakatzean, lorea lorearen gainean zabaltzen ari da, batak bestearen usainari gaina hartu eta azpian hartu nahian. Ikusgarritasunaren ohorea eta usaina hedatzeko elkarri airea kenduz. Loreen gudan gaude. Era guztietako landareetan aurkituko dugu orain lorerik: zuhaitzetan, zuhaixketan, herrestarrietan, igokarrietan, belarretan...

Usainetan ez gara sartuko –kabitu ere egin behar da!–, bakoitzaren gogokoak eta desgogokoak, denontzat adina bada. Usaina barreiatzen dutenetan erreginareen bat aukeratzeko dema eginez gero, *Lamiaceae* sendia ez da lotsagarri jardungo. Eta gailentzeko ere arrisku ederra. Loreetan baino usain gehiago sortzen du berdean: hostoetan, zortenetan...

Lore ezpaindunak ematen dituzte lehen *Labiatae* eta orain *Lamiaceae* deitzen dioten sendikoek. Horiek ditugu landare usaindun ezagunenak. Horietakoa da duela gutxi aipatutako otondo-belarra (*Stachys officinalis*), baina baita ere erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), izpiliku mina (*Lavandula stoechas*), izpiliku fina (*Lavandula angustifolia*), katu-belarra (*Nepeta cataria*), isipu-belarra (*Hyssopus officinalis*), mendarora (*Origanum majorana*), oreganoa (*Origanum vulgare*), ezkaia (*Thymus vulgaris*), azitraia (*Satureja hortensis*), mendak (*Mentha sp.*), salbiak (*Salvia sp.*), albahaka (*Ocimum basilicum*), garraiska (*Melissa officinalis*)...

Horietakoren baten hostoren bat edo txortentxoren bat edozein plateretan edo lapikotan topatuz gero, ez harritu, gero eta maizago darabilzkgu jakien gozagarri.

Sukaldean aurrera ari diren bezala, botikan ere tankeratsu, sendabelar ezagunak dira. Esentziak eransten dio usaina landare horien berdeari. Usain horrek baratzean ere badu zeregina: etor daitezkeen gaitzak eta izurriteak uxatu egin ditzakete. Guretzat bezalaxe, usainak gogokoak eta desgogokoak dira haientzat ere.

Barazkien eta geure gaitzak uxatu eta jakiak gozatu. Maizago erabili beharko genituzke... ■



Erromeroa,
Rosmarinus officinalis.

THOR-CC BY

Karabeleko

Ekologia, gizartea eta ikerketa

HAUTESKUNDE BEZPERAN Errekondok Hernaniko Karabeleko Elkartearen aurkeztu zuen liburua: “Nahikoa da politikari bati galdetzea zer jaten duen eta non erosten duen, bultzatzen duen eredua ulertzeko” egin zuen gogoeta. Beti ditu ateak zabalik liburuaren bidelagunetako bat den Karabeleko proiektuak. Bertako langile Oier Iurramendik erakutsi digu bisitariok aurkituko duguna:



Hasteko, Agifes-eko (buruko gaixotasunak dituztenen Gipuzkoako elkarte) 10-15 kide baratzean lanean. Baratzeok terapia zentro dira. Horrez gain, ekodenda aurkituko dugu. Bertan saltzen duten denak du ziurtagiri ekologikoa: landareak, lurrak, substratuak... herri baratzeetan dabilzanek behar duten moduan. Eta ikergunea ere zabalik izango dugu. Barietateak aztertzeke dagoen premiari erantzunez, Karabelekora mundu zabaletik ekartzen dituzte landareak, bertan ekoitzi eta prozesua aztertzeke. Lasai jo dezakegu barietate bitxiok ezagutzera. Azkenik, 1,5 hektareako baratze honek ematen duenaren inguruan kontsumo taldea sortu dute. Munduko barazki bereziak ere iristen dira erabat ekologikoa den otarrera.

Irabazi asmorik gabeko Karabeleko Elkarteak lau erakunde ditu hanka: Agifes, Blasenea mintegi ekologikoa, Kimubat paisaia lantzen duen enpresa, eta Ernetuz SLL (bertako hiru langileek daramate ekodenda eta baratzekeo eguneroko lana).

Bizi Baratzea liburuaren aurrerapena ikusgai

www.argaia.eus/baratzea-lagina helbidean.



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusitako ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

☎ 943 371545
www.argaia.eus/denda
denda@argaia.eus



Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.



@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argaia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN HITZALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

**Ekainak 3
Mallabia**

Ludoteka berrian, 19:30ean.

**Ekainak 4
Azkoitia**

Elkargunean, 18:30ean.

**Ekainak 5
Itziar**

Burugorri gunean, 19:30ean

**Ekainak 6
Irun**

FICOBAN, BioTerra azoka ekologikoan, 16:00etan.

**Ekainak 9
Lezo**

Kultur aretoa
(Donibane kalea), 19:00etan.

**Ekainak 10
Arrasate**

KulturAtea, 19:00etan.
EreinDa Jan elkarteak antolatuta.

**Ekainak 11
Leintz-Gatzaga**

Gatzaren Museoa,
18:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

sustapena@argaia.com

☎ 943 371 545

ALTERNATIBEN HERRIXKA DONOSTIAN

Bide bizia, bizia bide

Donostiatik igaroko da Europan Klimaren krisia gainditzeko borroken ikur bilakatu den Bizi! mugimenduak antolatutako Alternatiba itzulia. Ekainaren 5ean. Aukera baliatuta, alternatiba sozio-ekonomikoak bilduko dituen ekimena antolatu dute, festa giroan, bestelako bideak badirela ikusarazi eta elkarlana sustatzeko.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |

KLIMAREN ALDAKETAREN arriskuez eta hori eragozteko alternatibez herritarrak ohartarazteko mobilizazio zabala antolatu da Bizi! mugimenduaren inguruan, Europan gutxitan ikusten den bezalako. Aurtengo ekimen nagusia tamden bidez Baionatik Parisera bidea egingo duen Alternatiba Itzulia da. Ekainaren 5ean Donostiatik da igarotzekoa, eta horren aitzakian, Alternatiben herrixka antolatu dute Gipuzkoako hiriburuan. Hurrengo egunean izango da ekimena, ekainaren 6an, larunbatez. Bizitza erdiguenean kokatzen duten proiektuen topagune izateko bokazioa du. Antigua auzoko Matia kalea ardatz hartuta, egun bakarrean makina bat hitzaldi


eta jarduera egingo dituzte. Denera Donostialdeko 50 eragile hartuko dute parte.

50 eragile horien artean, bakoitzak bere erritmoan eta ahal duen neurrian egingo du ekarpena. Batzuk egunean bertan soilik hartuko dute parte, eta beste zenbait aspaldi ari dira lanean larunbatekoa festa eta aldarrikapen egun handia izan dadin. Antolaketaren ardura nagusia Saretuz izeneko Donostialdeko kontsumo kontziente eta eraldatzaileko sareak hartu du. Bertako kide da Mainer Sagredo Eskudero, eta Alternatiben Herrixkak hiru

helburu jakini erantzuten diela dio: egoera klimatiko larriaren mezua zabaltzea, trantsizio sozial eta ekonomikorako deia egitea, eta Donostialdeko alternatibak ikusaraztea. Bestalde, aldarrikapena eta festa bateragarriak direla azpimarratzen du: “Gaia serioa izateak ez du esan nahi ongi pasa ezin dugunik. Jai giroan elkartu eta gozatu egin nahi dugu”. Ez du uste, gainera, egun isolatu bakarreko ekimena izango denik: “Eragileon eta pertsonon artean sinergiak ari dira sortzen, eta horrek etorkizunean elkarlanean jarraitzeko aukera emango digu”.

Bertako produktuak mahai-inguru artean

Matia kaleak zeharkatzen dituen plazak eta Txantxa-



rreka Gaztetxea izango dira gunen nagusiak, egitarau oparoarekin: alternatiben azoka, kale-animazioa, artisau azoka, haurrentzako jolasak, tailerrak, erakusketak, dokumentalen emanaldiak... Mahai-inguruek ere izango dute beren tarteak. Goizaldera elikadura burujabetza izango dute mintzagai, eta bazkalarettik “jaiak eta jasangarritasuna”, EHZ, Donostiako Piratak, Gora Iruñea eta Eguzkizale konpartsako kideen parte-hartzearekin. Bazkaldu Antiguako Frontoian egingo dute. Ez edonola, gainera: Alternatiben Herrixkaren balioei jarraiki garaiko eta bertako produktuekin osatutakoa menua dastatuko dute. Hori bera da, izan ere, larunbatean frogatu nahi dutena: egunerokoan egiten ditugun gauza gehienak modu jasangarriago batean egin daitezkeela. “Zer eraginkorragorik hori erakusteko egunero gutxienez hirutan egiten ditugun otorduak baino?”

LANDER ARRETUEA



Donostiako Añorga auzoko Firestone fabrikaren Eraldia espazio eraldatzailea sortu zuten maiatzaren 1ean. Bertan, Alternatiben Herrixkako eragileek aukera izan zuten euren mezua zabaltzeko.

Ekonomia sozial eraldatzailea ere bada alternatiba

Alternatiben Herrixkaren ardatz nagusietakoa klimarekiko ardura bada ere, parte hartuko duten eragileek ez dute naturarekiko harremana soilik lantzen. Alternatibaren konzeptuari zentzu zabalenean heldu diote, merkatuaren aldean, pertsonak erdigunean jartzen dituzten proiektu guztiak bilduz. Horren erakusle, arratsaldean ekonomia sozial eraldatzailearen inguruan solastuko dira OlatuKoop, Fiare, Emakumeen etxea eta Emaus Gizarte Fundazioko kideak.

Emausen dabil lanean burubelarrri Olaia Larruskain Mendiola, baita Alternatiben Herrixka antolatzen lanetan ere. Dioenez, euren lan ildo nagusien artean dago “ekonomia solidarioa” esaten diotena, eta bat egiten dute Donostiako topaketaren helburuekin. “Argi adierazi nahi dugu ekonomia sozial eta solidarioa alternatiba erreala dela”. Elkarlana eta proiektuak gizarteratzea ere estrategikotzat jotzen ditu Larruskainek. “Alternatibak badaude sektore gehienetan: kontsumoan, produkzioan, finantzetan, zerbitzuetan, zaintzan... Garrantzitsua da herri-

tarrok horiek denak ezagutzea; jakitea erabaki ekonomikoekin gizar-tean eragin nahi badugu, badagoela non aukeratu”. Alternatiben Herrixkaren gisako ekimenek horretan paper garrantzitsua dutela deritza, “unibertsitatean, adibidez, ekonomiarekin oso gertuko lotura duten graduak ikasten dituztenek ere maiz ez baitute bestelako ekonomia eredu honen berri izaten”.

Urriaren 24an Euskal Herri mailako Alternatiba Herria Bilbon

Ekainaren 6an Donostian egingo denak Donostialdeko eragile eta



Baionatik Parisera, 5.000 kilometroko Alternatiba Tourra

EKAINAREN 5EAN abiatuko da Baionatik pelotoia, Alternatiba Tour, baina hilabete lehenago Ingalaterrako Todmorden herrian burutu du prologozko etapa: maiatzaren 3an, “Alternatiba Todmorden”, non eta mundu osora Transition Town eredu zabaldu duen hartan. 2013an Iparraldeko Bizi! Mugimenduak Baionan antolatutik, klimaren krisia gainditzeko borrokan ikurretako bat bihurtu da Alternatiba Europan.

Azken prestaketetan ari dira, dagoeneko dozena erdi bat bilkura zabal antolatuta Frantziako Estatu 50 hiritatik iritsitako ordezkariekin. Ekainaren 5, 6 eta 7an Euskal Herriko lurretan ibiliko dira itzuliko txirringularrak, ardatz dauzkatala Baionan eta Donostian egingo diren Alternatiba herrixkak. Eta hortik irailaren 26an Parisko helmugara iritsi artean, jira eta bira 5.000 kilometrotan zehar, herritarrak berotzen udazkenean hiriburua hartan klimaren krisiaren inguruan burutu beharreko COP21 gailurrean munduko agintariei presio egin diezaieten.

Lehendik lanean ari ziren talde ekologisten aldamenean estilo ezberdina eta lanerako indar berria ekarri ditu Bizi! gazteak, Manu Robles Arangiz Fundazioaren babesarekin. Baionan duen talde nagusiaren aldamenean lekuko txikiagoak sortu ditu, tartean Larrun, Barnealde eta Zuberuakoa. Azken udal hauteskundeetan eztabaidatzeko “Lan Tresna Kutxa” interesgarria zabaldu ostean, hautetsien hiru laurdenek trantsiziorako oinarritzko neurriak onartzea lortu zuen.

Frantziako Estatu mailan, Baionako Alternatiben Herrixkak adina oihartzun emango zion Hexagono



Bizi! mugimenduko kideak Alternatiba Tourraren sinbolo bilakatu den tamdenean. Parisko klimaren gailurrari begira mobilizazio handia antolatu dute.

osoko kamioilariak *eco-taxe* edo kutsaduragatikoz zerga pagatzearen kontrako matxinadan ari zirenean Bizi!-k horrelako zerga baten beharra defenditu eta kamioi bidezko garraioaren salaketa ausarta egin izan.

2014an, Lapurdiko Zokoan egindakoaren parean, Alternatiba izenez (euskarazko “b” hizki eta guzti) 35 gehiago antolatu ziren Frantziako Estatu osoan barrena, urrutienekoa antipodetako Tahitin. Orain izen bera eramango du Parisko klimaren gailurrean bildu agintariei ausardia eta irmotasuna eskatuko dien Europako mobilizazio handietako batek. Trantsizio klimatikoaren aurtengo irudi nabarmenetakoa izango dira hiru eta lau txirringularriz osatutako tamden erraldoiak.

Pello Zubiria Kamino

proiektuak bilduko ditu soilik. Hala ere, aurrerapen bat besterik ez da izango, urriaren 24an Alternatiben Herri nazionala egingo baita Bilbon, 2013an Baionan egin zenaren parekoa. “Donostian Saretuz-ek jada egin zuen bidea, eta bazegoen lanerako prest zegoen jendea ere. Horregatik erabaki genuen Bilboaren aurretik bertan beste bat egitea”. Hala dio Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren sustatzaileetako bat den Unai Oñede-

rrak. Makina bat eragile eta sindikatu sozialen arteko elkarlanarekin

Alternatibaren kontzeptuari zentzu zabalenean heldu diote, merkatuaren aldean, pertsonak erdigunean jartzen dituzten proiektu guztiak bilduz


eta proiektu parte-hartzeaille bati esker euskal gizartearen alternatiba izan nahi duen Programa Soziala osatu dute. Haiek ari dira Bilboko Alternatiben Herria antolatzeke lanetan, “eskubideak aldarrikatzeari, alternatibak sortzea gehitu behar baitzaio”. Oñederraren arabera: “Beti gabilta marginal izatetik egiazko alternatiba bihurtzeko ahalginean. Donostiako eta Bilboko topaguneek horretarako parada emango digute”. ■

Ekainaren 5a, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

Gure lurraldetik

KLIMA ALDAKETARI

aurre egiteko konpromisoa



**KLIMA
2050**
BASQUE COUNTRY



EUSKARAREN TRANSMISIOA

Gurasoek nola seme-alabek hala

Eibarko ...eta kitto! euskara elkarteak antolatutako *Euskararen transmisioa* mintegia egin dute maiatzaren 25ean. Gurasoek euskara zenbat eta gehiago erabili, seme-alabek orduan eta euskara maila hobea dute. Haur-gazteek zenbat eta gehiago menperatu hizkuntza, orduan eta beldur gutxiago erabiltzeko. Gurasoak euskaraz aritu ala ez aritu; emaitza ez da bera.

| MALEN ALDALUR AZPILLAGA |

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



...eta kitto! euskara elkarteak bosgarren urtez antolatu ditu hizkuntzari lotutako jardunaldiak. Argazkian, aurtengo edizioan parte hartu dutenak.

“GURE AURREKOEK honaino ekarri zuten gurdia. Orain, gure txanda da”, esanda bukatu zuen Malores Etxeberria Hernaniko Udaleko euskara teknikariak. Zilegi da bukaerarekin hasiera ematea, honaino iritsi baita euskararen gurdia, eta ez alferrik. Euskararen transmisioa hezkuntzan txertatzeko ahalegin handia egin bada ere,

hizlari guztiak bat zetozen hizkuntzaren transmisioan etxeak eta familiak berebiziko garrantzia dutela esatean.

Pello Jauregi EHuko Hezkuntza Zientzietan doktoreak, *Etxeko eta kaleko hizkuntza erabileraren arteko loturak: Lasarte-Oriako ikerketa bat* ponentzian, 2012an egindako ikerketa bateko datuak mahai gaineratu

zitzen; besteak beste, honako emaitzak: guraso biak euskaradunak dituzten seme-alaben hamarretik bederatzik euskara maila oso ona dute; gurasoetako bat erdalduna dutenean berriz, hamarretik sei dira euskara maila ona dutenak; eta bi gurasoak erdaldunak direnean hamarretik bi baino ez dira mintzatzeko ongi euskaraz.

Batzuetan, gurasoak euskaldunak izanagatik, elkarrekin gaztelaniaz hitz egiteko joera dute, eta horrek albo kalteak sortzen ditu hizkuntza transmisioan. Horrelako adibideak aztertu dituen ikerketa baten berri eman zuen Etxeberriak *Familia bidezko transmisioa: guraso euskaldunen diskurtsoa* hitzaldian. Gurasoek inguruneari garrantzi handiegia ematen diotela uste du: “Etxean erdaraz egin arren kanpoan euskaraz egiten badute nahikoa dela iruditzen zaie, bereziki eremu oso euskaldunetan”.

Badago alderik ezagutzetik erabiltzera. Jauregik aurkeztutako ikerketan argi ikusten da hizkuntz gaitasuna estuki lotuta dagoela erabilerarekin: zenbat eta hobeto jakin, orduan eta gehiago erabili. Izan ere, hizkuntza ondo menperatzen ez dutenek hanka sartzeko beldurratik maiz gaztelaniaz hitz egiteko joera dute. Bertsolaritzarekin paralelismoa egin zuen Miren Artetxe bertsolari eta Euskal Filologian lizentziatuak: “Bertsolaria ez da bat-batean kantatzeko gai izango gaizki egiteari beldurra galtzen dion arte”. Horretarako, Artetxeren ustez, ezinbestekoa da bertso-eskolan sortzen den enpatia giroa. Hari horri tiraka, Etxeberriak uste du garrantzitsua dela hizkuntza menperatzen ez dutenen ahalegina baloratzea eta inguru atseginak sortzea haien hizkuntz erabilera handitzeko. Era berean, transmisioaren gakoa euskaraz dakiten gurasoek elkarrekin euskaraz egiteko hizkuntza balio modernoekin lotzea dela iritzi dio: gaurkotasunarekin eta praktikotasunarekin.

Eibarren eta Gasteizen gurasohaurrentzat egitasmoak

Gurasoak euskaraz mintzatzeak hizkuntzaren transmisioan duen pisuaz ohartuta, hainbat herritan zenbait ekimen jarri da abian. Esa-

terako, Eibarko ...eta kitto! euskara elkartearen *Gurasoak berbetan* egitasmoa eta Gasteizko Geu euskara elkartearen *Igandeak jai. Familia giroan euskaraz* ekimena.

Gurasoak berbetan egitasmoaren funtsa, guraso eta seme-alabak elkarrekin euskaraz hitz egitea da. Horretarako, euskara praktikatu nahi duten gurasoekin talde txikiak osatu dituzte, gune lasai eta informalean euskaraz hitz egin ahal izateko.

“Umeek etxean erdaraz egin arren kanpoan euskaraz egiten badute nahikoa dela iruditzen zaie gurasoei, bereziki eremu oso euskaldunetan”

Malores Etxeberria,
euskara teknikaria

Maider Aranberri ...eta kitto! euskara elkartearen teknikariak dio, askotan, gurasoek umeari euskaraz hitz egiten badiote ere, elkarrekin gaztelaniaz egiteko joera dutela. Horri buelta eman nahian sortu zuten *Gurasoak berbetan* ekimena 2010-2011 ikasturtean.

Gaur egun, Eibarko Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskola guztiak dute harremana, nahiz eta partaide kopurua apenas handitu den azken urteetan: “Zailtasunak ditugu guraso gehiagorengana heltzeko”.

Gasteizko Geu euskara elkarteak ere antzeko helburuekin sortu du *Igandeak jai. Familia giroan euskaraz* ekimena. Hileko azken igande arratsaldean elkartzen dira eta haur ikuskizun bat eta jolasak egiten dituzte euskaraz. Helburua, familiak elkarrekin eta beste familia

batzuekin euskaraz harremantzea da. Egitasmo honen bitartez hainbat helburu lortu nahi dituzte, hots, euskararen familia transmisioa lantzea, familia euskaldunen arteko loturak trinkotzea eta familian euskaraz gozatzea.

Eusleak hizkuntza eusten

Gurasoak ez dira euskararen transmisiorako gako bakarrak. Jauregik uste du ezinbestekoa dela familia naturalean, hau da, eremu kolektiboan euskararen erabilera sustatzea. Horretarako, *Eusle* metodologia proposatzen du. Momentuz, lantegietan bakarrik jarri da praktikan, baina beste eremu batzuetara ere zabal daiteke. *Eusle* metodologia aplikatzeko baldintza kide guztiak euskaraz ulertzea da. Baldintza hori beteta, lantegiko kideek adostasun kolektibo baten bidez –erdia baino gehiago ados– zilegitasuna eman behar diote euskara hutsezko jardunari. Ondoren, taldeak eusle bat edo bi –kopuru txiki bat, taldearen dimentsioaren arabera– aukeratuko du. Euslearen lana izango da uneoro eta denekin euskara hutsez aritzea adostutako denbora tartean. Eusleak taldeak aukeratutakoak direnez, beldurrik gabe eta zilegitasunez egin dezakete beti euskaraz.

Eusle hizkuntza gatazkari aurre egiteko metodologia dela uste du Jauregik. Adibidez, euskaraz ulertu arren gaztelania hutsez ari den hiztun batekin hitz egitean, normalean, elebidunak komunikazioa modu naturalean gauzatzeko gaztelaniara joko du. Metodologia honekin aldiz, eusleak nahitaez euskaraz egin beharko du, taldeak konpromiso hori atxiki diolako, eta horrela, zenbait egoeratan erdal hiztuna ere euskaraz egitera bultzatuko du.

Eusle metodologia bestelako talde uniformeetan ere aplikatu daiteke, lagun taldeetan edo familietan esaterako. ■

Babeslea: Hernaniko Udala



Gizartera egokitu ala behetik gora eraldatu?

300.000 lagunena babesa jasota ere, EH Bilduren mugak agerian utzi dituzte hauteskondeek. Azkarregi joan izana al da beherakadaren arrazoi nagusia? Vocentoren erasoaldia, akaso? Momentuko egoerari dagokio kezka ala estrukturala da? Herri mugimenduaren ikuspegitik gaiari buruzko analisia ondorengo bi orrietan.

| AXIER LOPEZ / LANDER ARBELAITZ |

EZKERREKO INDEPENDENTISTEN eremuan azken lau urteetan gertatzen garrantzitsuak jazo dira: 50 urteren ostean borroka armatuaren amaiera; ezker abertzalearen legalizazioa; EA, Alternatiba eta Aralarrekin koalizioa; zerrenda “kutsatuen” arau antidemokratikoen arabera jokatu beharra; sekula izan duen botere instituzionalik handiena kudeatzea; epaiketa politikoen gurpilak ez du etenik izan... Edozein indar politiko sakon baldintzatzeko moduko egoera, eta ziurrenik eragin zuzena izan du bere analisi eta jardun politikoan.

Alderdi politiko tradizionalen mugak inoiz baino ageriago geratu dira azken urteotan mundu zaballean. Alderdien menpeko “joko demokratikoa” delakoak demokratikotik gutxi eta jokatik asko duela dioen ustea bere egin du herritarren multzo zabal batek. Gurean aldiz, hemengo politikaren ezaugarriek baldintzatuta apika, ezker abertzaleak ez du orokorrean “ez gaituzte ordezkatzeko” ziotenekin konektatzea lortu. Politika egiteko bestelako moldeen beharraren aurrean, ezker abertzaleak inoiz baino alderdiago jokatu duela sentitu du askok. Normaltasun eta kudeatzaile onaren irudia eman nahian, gainerako alderdi politikoen eskema berean kokatu du bere burua EH Bilduk. Erabaki horrek sakoneko ondorioak izan ditu: politikoki zuzenaren mugak gainditu nahi ez izatea,

proiektuen arteko konfrontazioa saihestea, erabilitako terminologian eta komunikazio estrategian gainerako alderdien eredutik ez aldentzea, borroka-moldeen esparruan ekarpen berririk ez egitea... Asier Blas politologoak Hamaika Telebistan esan zuenez, “ezkerreko profila bigarren maila batean utzi du, bere burua EAJ *progrez*at aurkeztuz, bere identitatea diluitu du EH Bilduk. Merkealdi ideologikoan sartu da”. Izaera independentistan ere, erabakitze eskubideari eman diote zentralitatea. Independentismoak esparru berriak irabazteko ezinbesteko duen pedagogia ideologikoan behar beste ez sakontzea leporatu dio batek baino gehiagok koalizioari.

Politika egiteko bestelako moldeen beharraren aurrean, ezker abertzaleak inoiz baino alderdiago jokatu duela sentitu du askok

Diluitze horretan EH Bilduk ordezkatu du ezkerreko profil nabarmena duten Sorturen eta Alternatibaren oinarri sozialak mezu propioa. Koalizioaren mezu politiko lauak ez ditu herrigintzan aktiboenak diren asko asetzen. Herri mugimenduko militante asko-

ri alderdi politikoeziko laxokeria, eta ilusio falta nabari zaie.

Ezker abertzalearen mezuan eta oinarri sozialean historikoki ohi-koak izan dira herritar antolatuen aldeko apustua, ordezkaritza sistema politikoeziko eta alderdi tradizionalerako kritika zorrotza, eta inposaketan aurrean jarrera desobediente hobestea. Egun munduko zonalde askotan sortu diren mugimendu herrikoi berrietan nagusitu diren ideiak dira. Fenomeno sozial berri horiei buruzko irakurketa zorrotzago batek ahalbidetu dezake gizartearen sektore askok politika zaharrekiko duen aldentze sentimendua EH Bilduk bideratzea, kapitalismoaren aurkako alternatiba independentista argi bati lotuz. Politika berriaren eta zahararen arteko talka, ezkerreko mezu argi batez elikatuta, kontuan hartzeko aldagaia da. Langile klaseko beste jende multzo batzuekin –urte luzez ezkerreko independentistekin batera aritu gabeak– konplizitateak sortzeko aukerak dago. Euskaldun/espainiar dikotomia antzua gainditzeko, identitate herrikioia sustatzeko eta “behean” daudenen arteko harreman berriak sortzeko aukera paregabea pasatzen ez uztea du erronka ezker abertzaleak. Sortuko presidente Hasier Arraizek *Berrian* esandakoaren ildotik, “poliedrikoa izan behar du EH Bilduk”. Zonaldean zonaldeko analisia eta propo-



Kontuz nabarmendu egin da Nafarroan ustelkeriaren aurkako borrokan.

samenak sortu eta garatu litezke, Tuteran hautagaitza herritar baten alde egin izanak erakusten duen bezala. Antolakuntza eredu berrikustea izan daiteke lehen pausoe-tako bat.

Sistema politiko eta ekonomiko-arekiko asperdura orokorra sentitzen duen jende multzo hori Podemos bereganatu du, EAEn nagusiki. Herritar horiek ez dute ikusi ezker abertzalean zein EH Bildun ordezkari izan egokia. Horren adibide nagusia Euskal Herriaren herena biltzen duen Bilboaldean daukagu. Euskal Herri osoan pobrezia eta prekariedade parametrorik okerrenak dituen eskualdean, euskal eskuinak —eta abstentzioak— irabazi du, EH Bildu bozketan jaitsi egin da eta herri gehienetan bigarren indar gisa Podemos sartu da. EAJk ez dio bere balio antzekoak dituztenen eremuan indarrak metatzeari uko egin. Hauteskunde hauen emaitzek oso argi adierazi dute PPK eta PSOEk galdutako bozen zati handi bat EAJk eskuratu duela, eta hala, aurretik kontrolatu gabeko botere-guneak eskuratu ditu Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan.

Gipuzkoan, lehen aldiz hiriburua eta aldundia kudeatu ditu ezker abertzaleak. Edozein neurri, erabaki edo adierazpen garrantzitsuren aurrean oposizioaren, kontrol pribatuko hedabideen eta enpresari handien erantzun bateratuak ikusi ditugu lau urtez. Hondakinen gaia izarra izan da. EH Bilduk berak egindako akatsez gain, garrantzi

berezia izan du Gipuzkoa kontserbadorea defendatzen duten indar faktikoen erasoaldiak. Nekez eutsi diote herri gehienetan eta soilik herri mugimendu sendoa eratzea lortu duten lekuetan atera da airoso EH Bildu hauteskundeetan. Tokian tokiko herritar antolatu eta kritikoen kontzientziazio inurri lanik gabe nekez eutsiko die edozein alderdik edo instituzioek tamaina horretako erantzunei.

Instituzioak eta eraldaketa

Norberaren proiektu politikoa kudeatzeko guneak ala herri boterea sortzeko tresna dira erakundeak? Politika ulertzeko bi jarrera daude aurrez aurre.

Sabai edo muga gisa ikus daitezke egungo gizartearen balore tradizionalak. Proiektu eraldatzailearen balioak ez aldarrikatzeak edo ezkutatzek, ordea, ahulezia eta konfiantza falta transmititzen du. Baloreetan sakontzek, proiektuari koherentzia emateaz gain, subjektu eraldatzailea osatzen duten pertsonen aktibazioa dakar. Instituzioak, eta politika oro har, herritarrak aktibatze, antolatze eta behetik gorako ahalduntze prozesuak

Instituzioak herritarrak aktibatze, antolatze eta behetik gorako ahalduntze prozesuak azkartzeko tresna izan daitezke

azkartzeko tresna izan daitezke. Hau da, herritarrak aldatetaren lehen lerroan egotea gako da.

Azken hauteskundeetan bere ordezkari instituzionala hiru-koiztu duen CUPEko kide Anna Sabaték ARGIAN azaldu zuen ikuspegi hori: "Ordezkaritza instituzionalak herri mugimenduaren isla izan behar du, eta ez alderantziz. Antolatutako jendea ordezkatzeko dugu instituzioetan, ez beste inor. Suminduek gu ordezkatzeko gaituzte, eta ez alderantziz".

Alderdi politikoetan oinarritutako ordezkari instituzionala politika egiteko era zaharkitua da munduko jende askorentzat. Lau urtean behin herritar guztiei dagozkien kontuak erabakitzeko eskumena pertsona gutxi batzuei ematea ez da sistema egokiena. Politikarien gaineko kontrol ezaz gain, bozek ez dituztelako gizartearen gainerako botere-guneak kontrolatzen, multinazionalak eta masa-komunikabideak kasu. Beraz, "aldaketa" hitzaren sinonimo bilakatu den Nafarroari begiratzean bestelako zorroztasun batez egitea komeni da. Ezinbesteko pausua eman da Nafarroan: kasta politikoa botere-gune batetik eraztea. Herritar kritikoek sorturiko behetik gorako mugimenduen kontrolik gabe ordea, urrun izango da egiazko aldaketa, gizartearen baloreen eraldaketari dagokiona. Gipuzkoan eta Grezian ikusienez, botere instituzionala lortzea ez da nahikoa aldaketa sakonak gauzatzeko.

Horrenbestez, funtsezko galdera bati erantzun beharko dio EH Bilduk: zer izan nahi du, Euskal Herriko herri mugimendu anitzen jakinduria kolektiboaz aberastu eta elikatu nahi duen mugimendua ala ohiko alderdien egitura trinkoen batura?

Egiturak horizontaltzea egun atzeman daitekeen inplikazio eta ilusio faltari aurre egiteko modua izan daiteke. Antolakuntza ereduari buruzko eztabaidari bide emateak kolektibo indartzea ekar dezake. Boterea banatzea, belaunaldi aldatetari bide ematea eta funtsezko erabakiak militante eta oinarriek hartzea dira gako garrantzitsu batzuk. ■

Komunikazioa betaurreko moreekin

| LANDER ARRETXEAA BEREZIARTUA |



Kalaka

Izaera juridikoa: Kooperatiba bihurtzeko bidean.

Kideak: 2.

Alorra: Komunikazioa.

Egoitza: Beterriko Garapen Agentzia (Hernani).



LANDER ARRETXEAA

Kalakak komunikazio parekidea eskaintzen du, hizkuntza eta jarrera inklusiboak erabiltzen dituzte haien estrategiako eduki eta zerbitzu guztietan.

GENERO IKUSPEGIA kontuan hartuta lan egiten duten enpresa eta erakundeak, apurka, baina gero eta gehiago dira. Nerea Uri hernaniarrak eta Ilazki Gainza donostiarrak osatzen duten Kalaka komunikazio agentziarentzat ordea balio bat baino gehiago da. “Betaurreko moreak” dira euren lan-tresna ezinbestekoa. Horixe baita, hain zuzen, eskaintzen dutena: komunikazio parekidea.

Gipuzkoako Beterriko udalek elkarlanean antolatutako *Kooperatzen* programan ezagutu zuten elkar. Bertan, enpresa bat sortzeko oinarritzko formakuntza eta aholkularitza jaso dute. “Proiektu bana eraman genuen bertara, eta berehala ikusi genuen biak bateragarriak zirela. Gainera, ez genuen bakarrik abiatu nahi. Elkar ezagutzea izan da *Kooperatzen*-ek eman digun onena”.

Proiektuarekin aurrera egiteko Beterriko Garapen Agentziaren babesa ere izan dute, eta bertako Co-working espazioan biltzen dira goizero. Bertan eman diote forma laster irabazi asmorik gabeko kooperatiba izango den Kalaka komuni-

kazio agentziari. Ez dute, hala ere, agentzia bat gehiago izan nahi. Horretarako, genero ikuspegia euren lan guztietan txertatuz gizartean hausnarketa eragiteko ahalegina egiten dute. “Komunikazioa zapalketa handiko sektorea da. Guk frogatu nahi dugu gauzak bestela egin daitezkeela. Hori da gure ekarpena”.

Biak ala biak, komunikazioan edo kazetaritzan aritutakoak dira, eta sektorean egiteko asko dagoela diote. “Badirudi, gaztelaniaz adibidez, *los/las* jartzearekin nahikoa dela, baina hori baino askoz sakonagoa da. Genero ikuspegiak jarreretan eta edukietan ere izan behar du eragina”. Zentzu horretan, Kalakan hizkuntza eta jarrera inklusiboak erabiltzen dituzte haien estrategiako eduki eta zerbitzu guztietan, eta baita lantzen dituzten harremanetan ere.

Gabeziak osatzeko emakume sarea

Kalakak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez, komunikazioa da oro har euren lan-esparrua: estra-

tegiak diseinatu, garatu eta euskarrietara egokitzeko gaitasuna dute. Bien artean oinarritzko zerbitzuak eskaintzeko gai diren arren, lan espezializatuagoak egin ditzaketen emakumeen sarea ari dira osatzen: “Sortzen ari gara euren kabuz lanean dabilzan emakumeek osatutako talde bat, genero ikuspegia nola txertatu ulertzen dutenena. Haien laguntzarekin iritsiko gara bezeroek behar duten edozertara. Oraingoz, oso ongi hartu gaituzte”.

Landu nahi duten beste alor bat aholkularitzarena da: erakunde edo taldeei genero ikuspegia komunikazioan txertatzen laguntzea. Ildo beretik, formakuntza ikastaroak emateko prest daude. Izan ere, gizarte mugimenduetan dabilza Uri zein Gainza, eta egitura bat sortu nahi dute jendarteari bueltan ekarpen bat egingo diona. “Hau gure bizibidea izatea nahi dugu, asebeteko gaituen proiektua, eta ez aberasteko bide bat. Horretarako onena, harreman horizontaletan oinarritzea da”. ■

Emile Larre euskal kulturaren sustatzailea hil da

2015EKO MAIATZAREN 30EAN hil zen Kanbon 89 urte zituela. Apaiza, kazetaria eta idazlea izan zen.

1969. urtean *Herria* astekariko zuzendari izendatu zuten eta 33 urtez aritu zen kargu horretan. Astekaria baino lehenagoko garaian Sokorri goitizenarekin sinatzen zuen *Gazte* aldizkarian. Euskal Liturgia eta eliz testuetan itzulpenak egiten aritu zen. Belokeko monasterioan elkartu zen taldeko kidea izan zen eta liturgia latinetik



A. BAYO

Emile Larre 1951n apaiztu zen. Idazlea eta kazetaria izan zen, eta bertsolaritza sustatu zuen. Argakia 1991koa da.

euskarara itzultzeko lanetan aritu zen.

1967an euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 1975ean euskaltzain. *Aiberar euskal idazle batzuen goresme-nez* izeneko sarrera hitzaldia egin zuen. 2006az geroztik euskaltzain emeritua zen. Euskaltzaindian herri literatura landu zuen batik bat eta Herri Literatura batzordeko kidea izan zen.

Haurtzaroan bertso girorik bizi ez bazuen ere bertsozale sutsu bihurtu zen Teodoro Hernandorenaren eskutik. *Herria* astekarian lanean hasi zenean Ipar Euskal Herriko bertsolari gazteei bertso idatziak bidaltzeko bidea ireki zien. Epaimahaikide izan zen zenbait alditan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian eta Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Bertso jarriak idazten zituen. Bertsularien Lagunak Elkarteak kide zen.

Hainbat bertsolariren lanak bildu zituen Larrek, hala nola, Ernest Alkatenak, Jean Pierre Mendiburu-renak, Joanes Arrosagarairerenak eta Xanpunenak.

1990ean Argia Saria jaso zuen, ordurako euskal kulturaren eginaren ibilbideagatik.

EKONOMIAREN TALAIAN

Kapitalismoari hortzak erakutsi

EGUN HAUETAN alderdi guztiek aztertu dituzte hauteskundeetako emaitzak. Ekonomiaren ikuspuntutik ere azterketa egin beharra dago.

Lehenengo ondorioa: euren burua ezkerrekotzat duten Euskal Herriko indarrek 750.000 boto lortu dituzte, eskuinekoak izan daitezkeen 600.000 botoen aldean. Agian egongo dira ezkerrekoak diren pertsona ugari absentezio aktiboa egiten, euren erreferentzia politiko ohikoak zigortu nahi izateagatik edo aurkeztu den inorekin ados ez daudelako.

Bigarren ondorioa: Horrek guztiak kapitalismoaren kontra egiteko potentzial apartekoa osatzen du eta modu egokian kudeatu beharko litzateke, ezkertiarren artean dauden ezberdintasun ideologikoak kontuan edukita. Potentzial hori beharrezkoa baita –eragile sozial, sindikal eta herrikoiekin batera– kapitalismoaren kontrako ofentsiba hasi eta jendartearen zerbitzura egongo diren politika ekonomiko eta sozialak sortzeko. Herritarrak erreskatatuko dituen ofentsiba bat behar da, deseginik dagoen ongizate estatua berregingo duena, langabezia ezabatuko duena, baita prekarietatea eta

pobrezia ere. Berdintasunaren eta soldatak hobetzearen alde borrokatu behar da, pentsio duinen alde; eta etorkinen eskubideak errespetatu behar dira, jendartearen bizikidetzara erakitzeko. Paradisu fiskalak ezabatu eta iruzurgileak zigortu behar dira, eta gehien dutenek –multinazionalak, banku handiak, aberatsak...– gehiago ordaintzeko fiskalitatea ezarri.

Hirugarren ondorioa: Jendarte justuago, orekatuago eta solidarioagoa eraiki nahi badugu, euren burua ezkerrekotzat eta antikapitalistatzak dutenek –hauteskunde programetan halaxe diote behintzat– horixe lehenetsi beharko lukete erabaki politikoak hartzeko orduan, beste arlo batzuetan dauden ezberdintasunak errespetatu. Bistan da ezkerreko indarren artean ideia ezberdinak daudela, antikapitalismoaren inguruko ikuskeratik hasita. Baina oinarrian ados jarri eta kapitalismoari hortzak erakustea litzateke gure aldeketa politikoaren hasiera. Esperantza apur bat ekarriko lieke gazte langabetu, prekario, etorkin eta bazterketa soziala jasaten dutenei.

Juan Mari Arregi



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

Castor zor ustela: gaur 1.350 milioi, 2044ra arte 4.730

Futbolariekin akaso bai baina Castor gas biltegiarekin negozio txarra egin duenik ezingo dio inork aurpegiratu Florentino Perez. Espainia gasez hornitzeko azpiegitura bikaina izan behar zuena antolatu, Estatua sartu inbertsioan eta alferrikako gastua dela ikusitakoan kalte-ordain galantak kobratu. Zor publiko handiak lapurretaz egiten dira.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EUROPAKO ARARTEKOAK ikertu behar du zer gertatu den Tarragona eta Castellóko uretan, Ebro ibaiaren deltaren parean, Castor gas hobiarekin Espainiako Estatuak bereganatu duen zor erraldoiarekin.

Berdeen taldeko Ernest Urtaus europarlamentariak defenditurik, Europako Legebiltzarrak maiatzaren 3an gehiengoz onartutako erabakiak dio: “Eskatzen diegu Europako Batzordeari eta Europako Inbertsioetarako Bankuari neurriak hartu ditzatela Espainiako herritarrek pagatu behar izan ez ditzaten 1.300 milioiko kalte ordainak, defizit publikoa handituta edo energiaren prezioak garestituz, penagarri ebaluatutako proiektu batengatik”.

Real Madrیدهko presidente izateak munduan ospetsu bilakatu duen Florentino Perez eta bere ACS eraikuntza eta energiako korporazioa dira iruzur handi honen protagonista nagusiak. Legez ondo apaindutakoa, bai, baina gertutik erreparatuz gero iruzurra.

%66,6an ACSrena den Escal UGS konpainiari 2014ko urriaren 3an 1.350 milioi euroko kalte-ordainak aitortu zizkion Madrilgo gobernuak, ministro zelarik Jose Manuel Soria. Hilabete eta hamar egun beranduago, Escal UGSk kobratu zituen sosa eta... *aió, Pelaió!*

Asko dira 1.350 milioi euro –antzinako 225.000 milioi pezeta inguru– ezertarako balio ez duen obra baten kalte-ordaintzat. Baina herritarren zergekin 2044a arte luzatuko den ordain epean, interesak kontatuz, 4.700 milioi bihurtuko dira, gaiaren inguruan adituen kalkuletan. Dirutza itzel hau zergekin eta energiaren fakturretako *propinarekin* pagatuko dute herritarrek.

Orain Castor izenez deitua urte luzez *Amposta* deitzen zen, bertatik petrolio ateratzen zuten garaietan, Ebro ibaiaren delta aurrean. Espainiaren erregai kontsumoa bermatzeko primerako azpiegitura izatekoa zen. Itsas hondoaren azpian, 1.800 metroko sakoneran, bertatik hustutako petrolioak utzi lekuan 1.300 milioi metro kubiko gas metatu ahal izango zen, urrutietatik ekarriarik, gero hemendik Mediterraneoko kostaldean banatzeko.

Hasi ere hasi ziren gasa injektatzen zorupean, harik eta inguruetan lurrikarak gertatu artean. Hasieran katastrofisten beldurrak omen zirenak, azkenerako zientzialariek berretsi zituzten: Castor hobia gasez bete ahala ugaritzen ziren lurrikarak. Ehunka lurrikara –700– egun gutxitan, batzuk Richter eskalan 4,7 gradukoak, sismologoaren esanetan horrelako fenomenorik kasik eza gutzen ez den lurretan.

Tjerk Van der Meulenek egin eta Ara egunkariak plazaratutako argazkian, Castor hobia, Castello probintziako Vinaros, Benicarlo eta Peñiscola aurrean. Ustez hartu zitzakeen 1.300 milioi metro kubikoen hamarrena ere sartzera iritsi gabe hasi zen lurrikarak eragiten kostako herrietan. Kataluniako Globalizazioaren garaiko Zorraren Behatokiak (ODG) eta Kontsumitzaileen Erakundeak (OCU) kalkulatu dute 2044a arte herritarrek 4.700 milioi euro pagatu beharko dituztela agintariek eta energia korporazioek eskuz esku antolatu eta porrota jotako inbertsio baten gatik. “Une larri honetan, langabezia goraka eta laguntza sozialak beheraka ari direnean, energia txirotasunak familien %17 harrapatzen dituenean, herritarrek ikusiko dituzte beren fakturak are gehiago garestitzen. Castorren gatik kalte-ordainak gehitzen bazaizkio gasaren fakturari, zein egoeratan utzi behar dituzte horietako familia asko?”.

Hiru errektore nuklear daude Castorren inguruko 100 kilometroen barruan. Gehi Tarragonako petrokimika usina handiak. Ahaztu gabe turistaz mukuratu betetako hondartza eta hiriak. Azkenerako, bertan behera geratu zen Castor operazioa.

Dardarak amaiturik aferaz ahaztu ziren herritar gehienak. Ez ordea Escal UGS eta Florentinoren ACS. Europak estrategikotzat jotako inbertsio batean sartzeko berme handiak eskatu zituztenez, horiek exekutatu dituzte: negozioa ondo baldin badao etekinak, eta negozioa edozer dela ere eten egin behar baldin bada, kalte-ordainak. 1.350 milioi. Dardarka jartzeko moduko zor publiko berri bat bereganatu dute herritarrek.

‘Project bonds’: zorpetze berria

Castorrek ezkututzen duen eskandalua salatu du Counter Balance - Challenging Public Investment Banks (Kontrapisua, inbertsio banku publikoei hortzak erakutsi) koalizioa. Zor publikoaren mekanika aztertzen duen taldearen kideen artean dago Kataluniako Globalizazioaren garaiko Zorraren Behatokia (ODG katalanezko sigletan).

Counter Balancek erakutsi du Castorrena dela finantzen krisi garaian inbertsioak egiteko Europar Batasunak asmatu duen ildo berria-



eta korporazioei— epe luzerako zor publiko handiagoetan murgilduz.

Horri gehitu behar zaio proiektuen bideragarritasuna bermatu behar duten adituen utzikeria batzuetan eta ustelkeria beste askotan. Politikatik enpresarako eta alderantzizko bidean *revolving doors* ate birakarietan espezialista direnen esku dago sarri proiektuon ebaluazioa.

*Castor*ez ari garela, hedabide handiek proiektua jendeari saldu ostean, hobiak lurrikarak ekar zitzaizkeela ziotenei iseka eginda, promotoreak saiatu ziren Banco Santander sartzen operazioan. Honek uko egin zion, oharturik inbertsioa pagatzeko etekinik ez zutela izango. Orduan promotore pribatu eta publikoek Europako Inbertsioetarako Banku publikora jo zuten. Honen 500 milioi euroko maileguren bermea lorturik, 2013ko uztailan jaulki zituzten inbertsiogileen merkatura bono edo obligazioak, azkenerako 1.400 milioi saltzea lortuz, %60 pentsio funts, inbertsiogile eta aseguru korporazioei.

1.300 milioi metro kubiko gas metatu behar zituen hobi erraldoian lehen 100 metro kubikoak sartu orduko hasi ziren lurrikarak. Lanak geldiarazi zituzten 2014ko urrian. Fitch eta Standard & Poor's agentziek *project bond* famatuak *junk bond* izendatu zituzten, zabor, deusen baliorik gabeko.

Espainiako Estatuko herritarren seme-alabek *Castor*ren gas hornidura bermatuaren ordez zor erraldoia edukiko dute. 2044a arte ordaintzekoa... alferrikako AHT, autopista, errauskailu, aireportu eta abar luzearekin batera. ■

ren lehen adibide eta lehen porrota. Lehenasunezko inbertsio estrategikoetarako bankuetatik nekez lortzen denez dirua, proiektuak bonu jaulkipenez finantzatzen dira, zor publikoa jaulkiz. “Kiebran sartuz gero, agente publikoei dagokie inbertsiogile pribatuek hartutako arriskuak amortizatzea. Adibide espainiarrak [*Castor*] atzean gordezten du finantza europarren mekanismo eskandaluzko bat”.

Lisboako 2007ko Itunak dio “energiatzko horniduraren segurtasuna” dela Europar Batasunak energiaren alorrean dauzkan helburuetan bigarrena. Europa atzerriko inportazioen oso menpe bizi da: kontsumitzen duen gasaren %60 eta petrolioaren %80. Atzerritiko

horniduraren etenak arrisku handia dira Europarentzako. Horregatik lehenetsi du erregai fosilak metatzeko hobi eta biltegiak antolatzea.

Castor izan da Europar Batasunak *project bonds* sistemarekin sortzen lehena. Europak berriro hazkunde sendo batera itzuli nahi du autopistak, trenbideak, energi sare eta gas hodiak, sare digitalak eta abar eraikiz, baina aldi berean administrazio publikoen aurrekontuetan austeritateari heltzen jarraitzea erabaki duenez, azpiegitura handiak finantzatzeko inbertsiogile pribatuetara jotzen du (pentsio funtsak, inbertsio funtsak, aseguruak...) obligazioak jaulkiz. Hots, uko eginez estatuen diru sarrera berriak sortzeari —zergak barkatuz aberatsei





ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Aldaketaren motore: 4 indar eta 26 eserleku

IRUÑEKO aldaketaren espaloietan ez dago besterik: plazan, eskola atarian, kontsumo taldean, Alde Zaharreko egunean... poza dario-la dabil Nafarroako gehiengo instituzional berria. Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko lehendakari izango da, Joseba Asiron Iruñeko alkate eta Nafarroako udal garrantzitsu gehienak aldaketaren esku geratu dira. Baikorrean ere, duela urtebete ez zegoen halako eszenatoki oparorik irudika zezakeen herritarrik.

“Txiripaz”, aipatzen da Ciudadanosi parlamentaria lortzeko falta izan zaizkion 250 botoei aipu eginez. Eta ez da arrazoirik falta, baina berdin litzateke “txiripaz” errejimenaren aldekoek 300 boto gehiago lortu izan balute eta 50 botok garaipena eman izan balie. Kontua da parra zirela blokeak eta pilotak alde batera egin duela.

Baina zortez gain, badira arrakasta hobeto azaltzen duten hainbat klabe ere. Seguruenik, horien artean garrantzitsuenak Ahal Dugu eta udaletako herri hautagaitzena da, hauek indar berri erabakigarriak ekarri dituztelako aldaketaren blokerak. Beste batzuk ere badira: eskuinaren banaketa, kanpainan aldaketaren ideia era bateratuan saltzea, Geroa Baik kanpainaren zati handia Barkosengan oinarritu izana, Geroa Baik asko hobetu eta EH Bilduk bereari eutsi izana, Ahal Duguk Ezkerra (EB-Batzarre) irentsi ez izana...

Hori guztia mahaiaren gainean jarrita argi antzematen da “txiripa” gutxi dagoela hemen; areago, Nafarroan ematen ari den gizarte aldaketa da egoera berriaren oinarrian dagoena, aurreko hauteskundeetan ere apurka islatzen joan izan dena.

Eta orain zer? Alaitasunaren bor-borretik zuhurtziara egin du herritarrek. Jakitun da aurrera begira dagoen desafio gaitzaz, pluraltasuna elkarrekin kudeatzeko dagoen kultura eskasaz, NaBairen desadostasunen zirko mediatikoa begien bistan da oraindik... Eta porrotarekiko izua agertzen da orduan: “Eta lortzen ez bada?”.

Horrexegatik, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu eta Ezkerraren erantzukizuna egundokoa da. Itzela den bezala aldaketaren alde egin duten mugimendu sozial eta herritarren erantzukizuna. Instituzio, alderdi eta mugimendu sozialen arteko komunikazio kanal zabal eta irekiak beharko dira esperimenduak iraun dezan, egongo diren adostasun, desadostasun eta gatazkak behar bezala blindatu eta bideratzeko.

Funtsezkoena aldaketaren 26 eserlekuen arteko indarren elkar ulertzea da, gobernua teknikoki era batera ala bestera eratu

Gaur egun inoiz baino gehiago, politikan ez da bakarrik zer, nola baino. Horregatik, sortuko den egoera berria ezin da izan ohikoa, hau da, Gobernuak egin eta herritarrek edo mugimendu sozialek txalotu edo gaitzetsi. Ez da kontua orain gobernantza esperimendu iraultzaile eta erabat berritzailea deskubritzea, baina inpresioa dut herritarrek eta alderdiak kezkatuago daudela programarekin, honi lau urtez nola eustearekin baino. Eta gobernuak iraun eta aldaketa-

ren kultura finkatuko bada Nafarroan, beharko da berrikuntza dosi bat aldaketaren eragile guztien arteko komunikazio eta jardunean.

UXUE BARKOSEN bilera erronda amaitu da eta, entzundakoaren ondoren, orain hari dagokio esatea gobernua nola eratuko den. PSNk gobernutik kanpo egon behar duela pentsatzea erabat logikoa da. Oso garbi dago bera giltzarri izan dela UPNren aroaren biziraupean eta, gainera, gobernu berriaren egoteak berau modu desegokian baldintzatzeko giltza ematea litzateke. Ez da hori orain PSNri dagokion tokia.

Egia da, alabaina, ona litzatekeela PSNren oinarri soziala neurri batean edo bestean aldaketan integratzea, eta hori bakarrik egin daiteke PSNren bidez. Hor dago erroka: integratu haren oinarriaren ikuspegi soziala, baztertu PSNren aparatoaren zentralismoa eta boterekeria. Gobernuo sailik eraman gabe ere, haien inguruko eduki, proiektu eta pertsonak izan daitezke aldaketaren parte. Horretan asmatzen bada asko egingo da Nafarroako gizartea hobeto ordezkatzeko eta Espainian datozen hauteskunde orokorretan eman daitekeen aldaketari begira jartzeko, batez ere bake prozesuari begira.

Hori guztia oso garrantzitsua bada ere, funtsezkoena aldaketaren 26 eserlekuen arteko indarren elkar ulertzea da, gobernua teknikoki era batera ala bestera eratu. Haiek dira aldaketaren motore, bereziki Geroa Bai, EH Bildu eta Ahal Dugu, eta hiru familia handi horien artean asmatzen ez badute, aldaketak porrot egingo du. Hain garbi, hain gordin. ■

ASTE HONETAKO

Zozketa



Argiako harpidedunentzat



**A fuego negro
jatetxea**

2 pertsonentzako
otordu bat

Abuztuaren 31-ren kalea 31.behea
Donostia Gipuzkoa
www.afuegonegro.com

1



STM
San Telmo Museoa

**San Telmo
museoa**

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA
www.museosantelmo.com

2



AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**Donostiako
Aquariuma**

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA
www.aquariumss.com

3



Argixorigin

Esti Vivanco + Josevisky

2 liburu opari

www.elkar.com

4



**Erlea gure
sendagile**

liburua

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2462. Argia)

LAR ZALDIAK

Jose Markaide Nafarrate (Gasteiz)

EUREKA!

Kandido Eizagirre Soraluze (Donostia)
Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)

EKAINBERRI

Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)
Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
Ione Gorostarzu Etxebeste (Berastegi)

UKABILAK ETA LOREAK

Landaberri Bhi Institutua (Lasarte Oria)
Jon Goti Mendiola (Usansolo)

OKATXU

Mirari Arriola Irizar (Oria)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

Gunea

argia



* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

Ondarea bertatik bertara

Jarrai dezagun ezkutuan dagoen ondarea ezagutzen!

Asteburu bat lurraldeko altxorrek ikusteko:

kobazuloak, trikuharriak, errotak, zerrategiak,...

artxiboek ere atea zabalduko dizkigute bertako

historiak eta sekretuak aurkitu ditzagun. Aukera ezazu

zure plana; 14 herri, 15 ekintza eta 16 lekuk mila

sekretu erakutsiko dizkigute!!

ekaina
6-7

Beizama · Bergara · Donostia · Errenteria · Getaria · Lazkao · Legazpi
Oiartzun · Oñati · Ormaiztegi · Segura · Tolosa · Urretxu · Zestoa



Gipuzkoa
BERRIA

www.gipuzkoakultura.eus